



## Ttittika Rekalt

«Beti gizonezkoen ereduan bagabiltza, iraultza guztiek porrot egingen dute»

- **Geingeniaritza** Klima aldaketaren ondorioak arintzeko sasi-irtenbidea
- **Net Hurbil** Munduko aberatsenen jomuga bihurtu dira nekazarien lurrak
- **Euskara Nafarroan** XV-XIX. mendeetako idazkiek nagusi zela frogatzen dute
- **Eusko Ekintza** Arritxu Santamaria eta Nekane Garmendia alderdikideekin elkarrizketa
- **Karmele Jaio** «Askotan denbora lapurretan ibili behar izaten da ezer idazteko»
- **Bixente Ameztoy** *Zeruko Argian* eginiko azalak, Joseba Sarrionandiaren begietatik



# Berlino Lertxundi

**GASTEIZ**  
Principal Antzokia  
Otsailak 22. 20:30tan

Antolatzailea:



TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA  
618421153

Laguntzaileak:



an@a  
amalka



berria



Diario

VITORIA  
GASTEIZ  
TEATRO PRINCIPAL ANTZOKIA

Salmenta: leihatila eta  
[www.entradas.cajavital.es](http://www.entradas.cajavital.es)





Azaleko argazkia:  
DANI BLANCO  
Azala: GARBINE  
UBEDA GOIKOETXEA



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Iureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxa: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak  
diruz lagundua



**Gipuzkoako Foru Aldundia**



**gizarte**  
**kutxa**  
zugandik zuzana



## NON ZER

2013ko otsailaren 17a, 2.357. zenbakia

### ASTEKO GAIA

**GEOINGENIARITZA** Klima “konpontzen” saiatzea, jolas arriskutsua. UNAI BREA / 4

### PERTSONAIA

**TTITTIKA REKALT:** «Tamalez, Euskal Herri hau oso txintxo da». SUSTRAI COLINA / 10

### GAIK

**FUTBOLA ETA DOPINA** Bekatutik libre?

JON TORNER ZABALA / 15

**FILIPINAK** Kanposantuko herria. PEDRAM YAZDANI / AGURTZANE BELAUNZARAN / 16

### IRITZIAREN LEIHOA

**FEMINIZIDIOA** AMAIA LASA ALEGRIA / 20

**KRISIA? ZER KRISI?** OIER ARAOLAZA / 22

**KONBENTZITUTA NAGO, ZALANTZARIK GABE**

MIKEL ASURMENDI / 23

**GORA PRO NOBIS** ASISKO URMENETA / 21

**TXANDAN** Klasistak ere bai. EDU ZELAIETA / 22

**BERTSO BERRIAK** Seaska. ODEI BARROSO GOMILA / 23

### ERDIKO KAIERA

**KARMELE JAIO:** «Egunerokoaren argazki ere badira ipuinok, baina horixe dira, ipuin». MIEL A. ELUSTONDO / 25

**BIXENTE AMEZTOY** Arteak eta kazetaritzak bat egin zutenekoa. GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 29

**LITERATURA** ARITZ GALARRAGA / 32

**MUSIKA** JOXI UBEDA / 33

**DENBORA-PASAK** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34

**ALEA** Aitzina. MYRIAM GARZIA / 35

**ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA** JOXERRA AIZPURUA / 36

**LANDAREAK** JAKOBA ERREKONDO / 37

**DENBORAREN MAKINA** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

### TERMOMETROA

**ARRITXU SANTAMARIA, NEKANE GARMENDIA:**

«Guk ez dugu ikusten garai berri batean gaudenik».

MIKEL ASURMENDI / 39

**FRACKINGA** Momentu egokiaren zain? UNAI BREA / 42

**ERRESUMA ZAHARREKO EUSKARA BIZIA** Euskara bistara konkista ondoko agiritan. MIEL A. ELUSTONDO / 44

**EKONOMIAREN TALAIAN** JUAN MARI ARREGI / 47

**EUSKARA ALBISTEAK** ONINTZA IURETA AZKUNE / 47

**NET HURBIL** Munduko laborariak lurra osten dieten lapurren galdezka. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

**MALTZAGATIK** XABIER LETONA / 50



# Klima “konpontzen” saiatzea, jolas arriskutsua

Aurrera doakigun mende berri honetan gero eta indar handiagoa hartuz joan da klima aldaketari aurre egiteko balizko tresna bat: georingeniaritza. Bestela esanda, Lurraren sistemak manipulatzeko klima aldatzeko (oraingoan, nahita). Gaur egun debekatuta daude horrelako teknikak, baina haren aldekoek ez dute horregatik etsitzen. Aurkariak, berriz, hautu horren arriskuez ohartarazi nahi digute.

| UNAI BREA |

Argazki-muntaia: Dani Blanco

IAZKO URRIAN jakin zen berria. Russ George enpresa-gizon estatubatuarrak esperimentu eskerga egin zuen Haida Gwaii artxipelagoko uretan, Kanada mendebaldeko kostaldetik 300 kilometrora. Georgek, edo hobeto esanda haren agindupeko langileek, 100 tona burdin sulfuro bota zuten itsasora. Ozeanoen ongarritzea esaten zaie era horretako teknikei; funtsean, helburua da modu artifizial batean planktonaren hazkundera eragitea. Planktonak atmosferako CO<sub>2</sub>a xurgatzen duenez, haren loratzea bizkortzeak negutegi efektua moteltzen lagundu dezake.

Jokaldiak klima aldaketaren ondorioak arintzea bezain helburu txalagarria zuela pentsa liteke, baina ez nahasi: Russ George negozio-gizona da beste ezer baino lehen. Haren xedea da planktona ugarituz atmosferatik –ustez– itsasora igaroko den CO<sub>2</sub>aren truke dirua irabaztea, karbono merkatuaren mekanismo konplexuak baliatuz. Ez da lehen saiakera; 2007an, Planktos enpresako zuzendaria zela, George burdina botatzen saiatu zen Galapago eta Kanariar uhartedien inguruetan. Orduan ez zuen lortu, baina iaz bai. Aurrez, Haida Gwaiiko biztanleei amarruz sinetsarazi zien esperimentua mesedegarria izango zitzaiela; ez zien aipatu, badaezpada, 2008an Nazio Batuen Dibertsitate Biologikoari buruzko Hitzarmenak (DBbH) moratoria ezarri ziola ozeanoak ongarritzeari.

Ozeanoak ongarritzea georingeniaritza izendapenak biltzen dituen teknika multzo zabalaren barruko bat baino ez da. 2010ean, Nagoyan egindako biltzarrean, DBbHk

moratoria zabaldu eta georingeniaritza-jarduera guztiei ezarri zien. Baina georingeniaritzaren definizio zehatzik



ez da adostu oraingoz; indarrean dagoena behin-behinekoa da. Hala, zenbait teknika moratoriatik kanpo daude, geoingeniaritza-rekin jarrera kritikoa dutenen ustez barruan behar luketen arren.

## Zer da geoingeniaritza?

Adostasun faltak ez digu eragotziko geoingeniaritzaren definizio bat eskaintzea. Teknologia-garapenaren arriskuak salatzen diharduen ETC taldearena emango dizuegu: klima aldatari aurre egiteko asmoz, Lurraren zoruari, ozeanoetan edota atmosferetan eskala handiko interbentzioak egitea da geoingeniaritza. Eskalarenak garrantzia du. Geoingeniaritzaren ezaugarrietako bat da planeta osoaren edo behintzat eskualde oso handietan eragiteko asmoa duela. Ez gara tokian tokiko proiektuez ari.

Multzo bitan bana ditzakegu geoingeniaritza teknika gehienak: eguzki-erradiazioarekin zerikusia dutenak eta atmosferan karbono gutxiago egotea helburu dutenak. Azken multzoan, berriz, bereizi behar dira dagoeneko eguratsen dagoen CO<sub>2</sub>a xurgatzeko asmoa dutenak, eta CO<sub>2</sub>a iturburuan bertan atzeman nahi dutenak atmosferara iritsi baino lehen. Kasu bietan, atzemandako karbonoa lur edo itsaso azpian gordetzea aurreikusten da. Dena den, Nagoyako moratoriak ez dio eragiten karbono iturburuan harrapatzeari: teknika horren bidez karbonoa ez denez atmosferara heltzen, Dibertsitate Biologikoari buruzko Hitzarmenak ez du geoingeniaritza hartzen. Zehatzago esan dezagun: ez da biodibertsitateari kalte egin diezaiokkeen geoingeniaritza mota bat. Hortik ondorioztatu daiteke, noski, beste motek bai egin diezaioketela kalte.

**Geoingeniaritzan bi teknika mota dira nagusi: eguzki-izpiak desbideratzeko helburua dutenak, eta atmosferatik CO<sub>2</sub>a xurgatzeko asmatutakoak**

## Eguzki-izpiak desbideratuz Lurra freskatu

Eguzkiaren erradiazioa manipulatzeko diogunean, gauza bitaz ari gara batez ere: eguzki-izpiak desbideratzeaz edo eguzki-izpiak atzera espaziora bidaltzeaz. Eman dezake oso ideia hipotetikoez ari garela, zientzia-fikzioaz kasik, baina ikerketa proiektu zehatzak daude mahai gainean. Hona batzuk: basamortuetako eremu zabalak estaltzea material islatzailez, eguzki-izpiak Lurretik urrun bidaltzeko; espazioan, Lurraren eta eguzkiaren artean, aluminiozko geruza super-mehea jartzea; elurtutako mendietan eta glaziarretan eguzkiaren argia islatzen duen nanoguruza ipintzea; milaka espazio-ontzi txiki bidaltzea Lurretik milioika kilometrora, argia desbideratuko duen “hodeia” eratzeko... Ideia ezagunena beharbada, sumendi artifizialak dira. Teoriak dio sumendiek airera botatzen duten sufre dioxidoak eguzki-izpiak islatzen dituela

–benetako sumendien zenbait erupzio bereziki bortitzen ostean tenperaturaren beherkada neurtu ahal izan da–, baina praktikan zalantza asko dago teknika horren eraginkortasunaz.

Ikus daitekeenez, eguzki-erradiazioaren kudeaketak ez dio inolara eragiten atmosferako CO<sub>2</sub> kontzentrazioari. Besterik gabe, berokuntza globalaren kontrapisua izateko asmatutako teknika sorta da. Proposamen gehienak, gaur-gaurkoz, AEBetako zenbait enpresa eta unibertsitatek datoz, baina Europar Batasunak badu programa bat, IMPLICC izenekoa, ildo hori jorratzen duten ikerlanak sustatzeko.


Ikus daitekeenez, eguzki-erradiazioaren kudeaketak ez dio inolara eragiten atmosferako CO<sub>2</sub> kontzentrazioari. Besterik gabe, berokuntza globalaren kontrapisua izateko asmatutako teknika sorta da. Proposamen gehienak, gaur-gaurkoz, AEBetako zenbait enpresa eta unibertsitatek datoz, baina Europar Batasunak badu programa bat, IMPLICC izenekoa, ildo hori jorratzen duten ikerlanak sustatzeko.

## Kendu diezaiogun CO<sub>2</sub>a aireari

Karbonoa atzemateko teknika gehienek helburua CO<sub>2</sub>a airetik atera eta beste leku batean gordetzea da. Multzo horretakoa da, esaterako, arestian aipatu dugun ozeanoen ongarritzea. Karbonoa atzemateko teknika ugari proposatu –are gehiago, patentatu–, eta esperimentu askotxo egin da (ikus 7. orrialdeko mapa). Adibide zerrenda mardula da hemen ere: itsasoen alkalinitasuna handitzea, CO<sub>2</sub>a xurgatzeko gaitasun handiagoa izan dezaten; karbonoa atzemango duten alga edo mikroorganismo sintetikoak diseinatzea eta

250





WWW.TRANSMISSIONMEDIA.COM

Geoingeniaritzaren ideiarik ausartenetako baten irudikatze artistikoa duzu honakoa. Zientzia-fikzioa dirudi, baina proposamena mahai gainean dago: eguzki-erradioaren zati bat desbideratzea espaziora igorritako ispiluen bitartez.

itsasora botatzea; hodiak erabiltzea itsas hondoko ura gainazalera igotzeko –modu horretan gainazala hoztuko litzateke, eta CO<sub>2</sub>a harrapatzeko gaitasuna areagotu... Baina ez pentsa beti itsasora jo behar denik, lehorrerako teknikarik ez da falta: aireko CO<sub>2</sub>a xurgatuko duten makinak eta zuhaitz sintetikoak, biotxarra –biomasa pirolisiz erretzea eta lurperatzea; ikus ARGIA 2.325 zbkia.–, eta abar.

ETCk beste multzo bat gehitzen die aurreko bie: klima eraldaketa. Gehiegi sakondu gabe, esan dezagun batez ere prezipitazio erregimena aldatzean datzala, bai euria eraginez bai eragotziz, hodeiak kimikoki edo fisikoki manipulatu. Urakanak disolbatzeko proposamenak ere badaude.

## XXI. mendean berpiztutako ideia

Ia mende erdi joan da AEBetako zientzialari talde batek geoingeniaritzaren aukera plazaratu zuenetik, baina ideiak azken hamarkadan hartu du indarra batez ere. ETC taldeak berak egindako *Geopiracy: The case against geo-engineering* (Geopirateria: geoingeniaritzaren aurkako argudioak) txosten mardulak dioenez, 2002-2009 bitartean geoingeniaritzari buruz –haren alde, funtsean– hedabide espezializatuetan argitaratuko artikulu kopurua bost aldiz handiagoa izan zen 1994-2001 bitartekoa baino. Hedabide orokorretan, berriz, hamabi aldiz handiagoa. “Gaur egun


politikoki zuzena da esatea geoingeniaritza klima aldaketaren kontrako erantzun bidezkoa dela”, irakur daiteke aipatutako ETCren txostenean.

## Geoingeniaritzaren susperraldia 2013an?

Kontuan izanda moratoria bat dagoela indarrean, kontraesana eman dezake geoingeniaritza begi onez ikusia dela esateak, baina ETCkoek argudio onak dituzte jarrera hori defendatzeko. Ez hori bakarrik, hasi berri den urte honetan geoingeniaritzak are indar handiagoa hartuko duela uste dute. Lehenik eta behin, gogoan izan behar da betiere AEBak ez daudela behartuta moratoria errespetatzera, ez baitira DBbHko kideak –hitzarmena berretsi ez duten hiru herrialdeetako bat da, Vatikanoarekin eta Andorrarekin batera–. Baina Estatu Batuetan bakarrik ez, moratoriarekin ala gabe Europar Batasunean gogotsu ari da geoingeniaritzaz ikertzen, nahiz eta zientzialari bat baino gehiagorenzat baztertzeko moduko alternatiba den,

**Geoingeniaritzak eztabaida etikoa sortzen du: Lurraren tenperatura hoztea lortuko bagenu, noren esku legoke planetaren “termostatoa”?**

## Mende Erdiko Geoingeniaritza Saiakeren Mapa



### Klimaren aldaketa

- Prezipitazioak areagotzea
- Prezipitazioak murriztea

### Eguzki-erradiazioaren kudeaketa

### Uretako teknikak

- Ozeanoak ongarritu
- Algetan oinarritutako teknikak

### Lurrazaleko teknikak

- Aire atzematea, atmosferako CO2a kentzeko
- Biotxarra (oxigeno gutxiren presentzian erretako biomasa)
- Karbonoa iturburuan atzematea eta metatzea (CCS) (Dibertsitate Biologikoari buruzko Hitzarmenak emandako geoingeniaritzaren behin-behineko definiziotik kanpoko teknika)
- Karbonoa atzematea eta metatzea, iturria biomasa erretzen duten energia-plantak direnean

### Besterik

- Geoingeniaritzaren puntu beroak
- Publikoki onartutako geoingeniaritza saioen bat egin duten herrialdeak
- Publikoki onartutako geoingeniaritza saiorik egin ez duten herrialdeak

ETC taldeak iazko ekainean argitaratu zuen mapa hau. Argitu zutenez, bertan ageri den informazioa ez da erabat zehatza; iragarritako esperimentu batzuk bertan behera geratu dira, baina era berean, ez da egindako guztien berri eman. Bestalde, azpimarratzekoa da biotxarrarekin zerikusia duten proiektu asko tokikoak direla, eta ez dutela klima eskala handietan manipulatzeko asmorik. Hala ere, tokiko ekimenek jatorrizko eskala gainditu eta beste herrialde batzuei eragin diezaiekete, ETCren esanetan.

eguzki-erradiazioa desbideratzeari dagokionez batik bat.

Klima Aldaketaren Gobernuarteko Taldeak (IPCC) berak geoingeniaritzari buruzko aditu bilera antolatu zuen 2011ko ekainean, DBbHk ezarritako moratoria indarran sartu eta gero beraz. Adituak bildu zirela diogu-

nean, uler bedi geoingeniaritzaren aldeko zientzialariak izan zirela bildutakoak. Baldintza horiekin ez gaitu harritu behar biltzarraren ondorio modura honakoa esatea DBbHko presidente Rajendra Pachaurik: “Munduak ezagutu behar ditu geoingeniaritzak klima aldaketari eskaintzen dizkion irtenbideak”.

# GEOINGENIARITZA

**Haren aurkarien esanetan, geoingeniaritzak lotura zuzena du ikuspuntu arriskutsu batekin: klima aldaketaren ondorioak arindu baditzakegu teknologia erabilia, zer axola noren erruz berotzen ari den planeta? Eta zer axola berotzen jarraitzea?**

## Aurka egoteko arrazoiak

Batzar horren aurretik, hainbat GKEk gutun bat bidali zioten IPCCri, geoingeniaritzaren hautua bazterrean uzteko eskatuz. ETCK, gorago aipatutako txostenean, hainbat argudio ematen du geoingeniaritza onartezintzat jotzeko. Batetik, ez dago alde aurretik probatzerik; klimari nola eragingo dioten jakiteko, teknikak oso eskala handietan erabili behar dira, hots, Lurraren eskalan. Bestetik, aurreikusi ezin ditzakegun ondorioak izan ditzake, besteak beste oraindik klima bezain gertakari konplexua guztiz ez ulertzearen ondorioz.

Badira arrazoi “etikoak” ere. Hasteko, argi dago munduko herrialde guztiek ez dutela gaitasuna geoingeniaritza teknikak praktikara eramateko. Lurraren tenperatura hoztea lortuko bagenu, noren esku legoke planetaren

“termostatoa”? Kontuan izan, besteak beste, zenbait enpresa pribatuk patentatuta dauzkaitela beren teknologiak. “Beldurgarria litzateke, behin geoingeniaritza martxan jarrita, monopolio bihurtu ahal izatea”, dio ETCK. Betiere gogoan izan behar baita negozioa egiteko igo direla asko geoingeniaritzaren gurdira. Ironikoa eman badezake ere, horien artean daude –ETCren aburuz–, berokuntza globala gizakiaren ekintzaren ondorioa dela ukatu izan dutenetako zenbait. Izan ere, geoingeniaritzaren ikuspuntu primeran datorkie klima aldaketaren zergati buruzko eztabaidari ihes egin diotenei, errua gizakiona dela onartu zein ez. Konbentziturata bagaude teknologiaren bitartez klima aldaketaren ondorioak arindu ditzakegula, zer axola noren erruz berotzen ari den planeta? Eta zer axola berotzen jarraitzea? Horra geoingeniaritzaren arrisku handienetakoa: haren aldeko apustua egitea galga ikaragarria izan liteke bestela ere sasoirik onenean ez dauden benetako irtenbideentzat. Nolanahi, badirudi geoingeniaritzaren aldekoen artean MAG estrategiak duela zale gehien. Alegia, negutegi efektuko gasen murrizketa, klima aldaketaren ondorioei egokitzapena eta geoingeniaritza uztartzea. ■



## EGIZUHARPIDETZA EGIOZUHARPIDETZA

Hego Euskal Herrian 145 € / Ipar Euskal Herrian 176 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herraldea

N.A./I.F.K.

Telefonia

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

943 37 15 45 · harpidetza@argia.com

Jaso lekuan  
kobratu  
SEILORIK EZ

**argia**

1-FD POSTA KUTXA  
20160 LASARTE-ORIA  
(GIPUZKOA)

TOLESTU

TOLESTU

ZELOPARRA  
HEMEN PMU

ERANTZUN KOMERTZIALA  
Balmien zkia. 17352  
(B.O.C. 22/99-06-02koa)





## **ETB** ziklo aldaketa

Zuzendaritza berria,  
telebista publiko erdua, tokiko telebistekin harremana,  
euskararen presentzia... Euskal Telebistaren 30 urteko  
ertzak eta datozen erronkak

**Datorren  
astean**

# «Tamalez, Euskal Herri hau oso txintxo da»

Korapiloa askatzean ez da sokarik eteten, luzatu egiten da.

| SUSTRAI COLINA |

Argazkiak: Dani Blanco

Handitzea kostatzen zaion haur bat omen zara. Zailtasunak ditut mundu heldu honetan nire burua kokatzeko. Behin heldutasunera iritsirik, gizarteak pertsona jakin bat izatea eskatzen dizu, arduratsua izatea, xelebrekeriak baztertzea... Oso serioa da heldua izatea, familia eta lanaren inguruan soilik mugitzen dela dirudi, eta haurtzaroak eskaintzen dituen ehunka leiho espontaneoak pixkanaka ezabatzen ditu. Nik, alta, elikagai bat nonbait topatzen badut leiho zirrikitu horietan da. Hori gutxi ez, eta gizonezkoen erreinuan eraikiriko helduen munduan beti zerbait garelara frogatu behar dugu. Umeez ez dute filtrorik, adin batera arte ez dute aurreiritzirik, eta harremanean dena esan dezakezu. Heldutasunarekin, aldiz, maskarak agertzen dira, gure buruari exijitu eta besteak ispilu bihurtzen ditugu, besteak gugandik zerbait espero dutela suposatzen dugu, eta horixe da elikatzen duguna. Ni gizonezko naizen heinean, ohartzen naiz publikoki gizon bati ezin diodala “triste naiz, negar egiteko gogoia dut” esan, edo maitasunez besarkada bat eman kalean. Zamaz betetako motxila daramagu, tabuek setiatuak bizi gara.

**Motxila hustea baino harriak eramaten segitzea nahiago izaten dugu batzuetan.**

Baina gure barneko sentsazioak ez dira hain estuak, ezabatuak zaizkigunak dira espontaneoki ateratzen zaizkigunak. Ume bat jaio orduko bideratzen da, bera bakarrik ez dela izateko gai pentsatuz. Okerrena da gurasoen arazoa dela, ez haurrarena, gurasoak baitira plaza publikoari euren umea zein txintxo den erakutsi behar diotenak plaza publikoak guraso onen onespena eman diezaien. Gero, ni ez naiz 20 urteko mutiko bat. Baserri mun-

duan lana, lana eta lana baizik ez zen garai batean sortua naiz. Sasoi hartan, aitaren rola tokatzen zitzaion gizonezkoak autoritatearen kapa jantzi behar zuen, hotz eta gogor agertu, behar zenean zigortu. Hori zen aita, eta bestaldean, ama zegoen, ezabatua kasik. Holako mundu batean aterratzen duzunean ez dakizu zure ereduak zein diren, ez dakizu zu zer deabru zaren, eta kanpoan ikusten duzunaren arabera zure burua eraikitzen saiatzen zara. Alabaina, nik kanpoan ikusten nituenak ehiza eta errugbia ziren, ez kontu atsegin, goxo eta sentsibleak. Horregatik, min asko dauzkagu gudan, lokatza bezala gure baitan daramatzagunak, eta etengabe galdeetzen dugu zer pentsatuko duten besteak gutaz. Denek nahi dugu maitatuak izan, maitatuak izateko antzerki pixka bat ere egiten dugu, eta gure barne sentsazioetatik desbideratzen gara.

**Barneko lokatz hori garbitzen lagundu zizuten Parisen iragandako urteek?**

1980tik 1993ra egon nintzen Parisen. Gainera, eta publikoki lehen aldiz diot, prostituitu egiten nintzen. Horrek lagundu ninduen nire mundutik ateratzen. Klase ertainetik gorako bezeroak aukeratzen nituen, beste mundu bat

## NORTASUN AGIRIA

**Ttittika Rekalt** Altzabehetin sortu zen 1959an. Xiberoko Botza irratiko kazetari eta esatari izateaz gain, aktore eta idazle ere bada. Beste lan batzuen artean, *Xora* filmeko protagonistetako bat da, eta *Oiherkoren tragedia* (2006) eta *Belagileak pastoral* (2009) idatzi ditu. Oartzunen bizi da, egun.









irekitzen zidatenak. Mundu horri esker hasi nintzen irakurtzen eta musika entzuten, giro horretan deskubritu nituen opera eta munduko literatura. Hor jabetu nintzen askok amesten dutela ondasun edo klase eskaileran goiti joatea, horrek zoriontsu egingen dituelakoan, baina zoriona ez dela hori. Nire bezeroek ohore guztiak zituzten, postu ospetsuak jendartean, baina ez ziren zoriontsu, zerbait falta zitzairen. Horrek nire baserritar, lur eta etxegabe jatorria deskonplexatzen lagundu zidan. Nire gurasoek ez zuten lurrik, ez zuten etxerik, etxeko sukaldea buztinezkoa zen, komunak lau taula kanpoan... Ni hortik atera naiz. Jakina da munduan jende desberdin asko izaten ahal dela, baina agertzen zaizun munduan jende molde bakar bat baizik ez denean ez daukazu mila bide: egokitu edo ospa egin. Memento batean, ezinegon bat nuen Euskal

Herrian, osasun pertsonal-mentalaren ize-nean gainditu beharreko gaizki izate bat. Ez duzu alde egiten ez dakit zer topatuko duzula pentsatuz. Ez, bazoaz eta kito.

**Zure errealitateak zerikusi gutxi du Benito Lertxundiren kantuetako Zuberoa bukolioarekin. Xora filmak bezala, funtsean.**

Hegoaldean ez dute onartu nahi Zuberoa berdea izateaz gain iluna ere badela, euskara galtzen ari dela, ez dela uste duten bezainbeste abesten, pastoralak iruzur kulturala direla kasik, bertan parte hartzen duten erdiari baino gehiagori bost axola zaiela Euskal Herria eta euskara... Zaila zaie klixetatik kanpo dena entzun eta onartzea. *Xora* ikusita horregatik galdetzen digute, “holakoa da Zuberoa?”. Hangoak garelako kontatu dugu hori; urtean hainbatetan entzuten dugulako 20 urteko gazte bat istripuz hil dela edo bere buruaz beste egin duela; ikusten ditugulako gazteak, bereziki mutilak, astebururo mozortzen, ahanzteko, *cocotte-minute*-aren tapa leherrarazteko. Badago bizi nahi bat, jendeak ez du bertatik alde egin nahi, baina ze gogorra den hain lotuta dagoen gizartean norbere tokia topatzea. Nik ez dut uste Zuberoaren arazoa ekonomia denik. Problema nagusia beste bat da: pertsona bat bere osotasunean, bere ñabardura guztiekin, nola izan daitekeen onartua hain jendarte lotu eta blokeatua. Zuberoan, ez bazara errugbian ari, ez bazara ehiztaria, eta ez baduzu tradizio jakin bateko ildoak segitzen, bakartia zara, bakarrik zaude.

**Ez dakit Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan ere ez diren beste lau probintziak idealizatzen. Zu Oiartzunen bizi zara.**

Guretzat, Iparraldeko belaunaldi batentzat, euskaldun gisan irauteko eredu bat zen Hegoaldea. Bertatik elikatzen ginen, bertako fantasiatik. Oiartzunera iritsi nintzenean, alta, “*Little Ipar-Amerika*” iruditu zitzaidan hau. Harrituta nengoen jendea zein kontsumista zen ikusita. Guk lasterka, mendira edo bizikletan ibiltzera joateko *jogging* zahar bat eta kamiseta zulatu bat jantzi eta aitzina. Baina hemen ez, arropa bat bada bide gorrian ibiltzeko, beste bat mendira joateko, eskiatzeko beste bat... Oso kontsumista da jendea, eta harrituta nago mundu kontsumista horrek bere burua ezker abertzalean kokatzen duela. Ni bizi naizena ezker abertzale mundua da, baina burgesa. Bestetik, euskaldunak orokorki horretan gauden arren, *flash* egin zidan ikusteak nola jendeak euskaldun sentitu nahi duen baina ez baitezpada euskaraz hitz egin. Horrez gain, gertatu izan zait inauterietara moztortuta joan, eta bide bazterrean mozo-



rrorrik gabeko jendea ikustea mozorrotoei argazkiak ateratzen. Jende horrek gure ohitura zaharrez hitz egiten du, baina ez ditu bizitzen. Beraiegangandik kanpo dauden euskarriak behar ditu euskal sentimendu hori elikatzeke, baina ez du sentimendu hori bizi. Hemen dantza eta abarrak ikusten ditudanean, oso artifiziala da dena, umeen afera. Arropa folklorikoekin jantzen dituzte haurrak gurasoek argazkiak har ditzaten, baina gero herriko plazan kaleko jantziz dantza egitea, kultura bizitzeak dakarren plazerarekin, ez zaio inori burutik pasatzen. Futbola bai, baina beste adierazpide kultural herrikoirik ez dago hemen. Nahiago dugu nostalgia bati eutsi oraindik horretan gaudela sinesteko.

Kasik iruzur kulturalizat dituzun pastoralak kritikatu izan dituzu, baina era berean, 2009an eman zen *Belagileak* pastoralaren egilea ere bazara.

Pastoralaren forma oso konplikatu eta murriztailea da. Forma horrek, Frantziaren historiako heroiekin edo pertsonaia elizkoiekin gertatzen zen bezala, euskal sujetak onak eta txarrak, kristauak eta turkoak, binomioetara makurtu ditu, eta euskaldun guztiak onak bezala agertuak izan dira beti. Horrek deseroso sentiarazten nau. Edozein pertsona ez da ona edo txarra eta kito. Gainera, pastoralen bidez eskoletan irakasten ez den historia ikasten dela diotenean, ez da egia. Adibidez, pastorallean erakutsi izan zaigu Antxo bihotz onekoa zela, eskuzabala, buru argia, giristino moro eta juduekin akomodatzen zekiena, Konpostelarako bideak ireki zituenena... Baina *Gartxoten* argi ikusten da zer ziren Antxotarrak. Familiaren interesak kudeatzeko mugitu ziren, ez besterik. Monzonekin ber gauza. Pastoralean Monzonek ideal bat dirudi, baina denek dakigu Monzon burges bat zela. Bere

**“Ez dut uste Zuberoaren arazoa ekonomia denik. Problema nagusia beste bat da: pertsona bat bere osotasunean nola izan daitekeen onartua hain jendarte lotu eta blokeatuan”**

abestiak entzuten ditudalarik, garai batean kokatuak zirelako agian, fatxa kutsu bat hartzen diet. Beraz, jakina, aipa ditzagun euskal sujetak, euskal jendeak, baina ez hola. Gainera nireztat pastorala ez da historia kurtsu bat. Enetzat pertsonaia bat hautatzea da gakoa, horren inguruan jokoan zegoena ikertzea, eta pertsonaia hori joko horretan nola mugitzen zen agertzea. Pertsonaia aitzakia da testuinguru zabalagoa aipatzeko. Hori da konplikatu. Nola erakutsi sujet bat, heroi bat, zuri eta beltza, lokatza eta marroia, alde guztietakoa dela.

Ez zenuen kasualitatez hautatuko emakumearen presentzia nabarmena ahalbidetzen zuen sorgin-ehizari buruzko pastorala idaztea.

Ez dut nire burua eredu elizkoietan ezagutzen. Egun Elizak dituen enpatiarik gabeko jarrera erreakzionario, bortitz, esku-

matar eta gaizto horietan ez dut nire burua topatzen. Are gutxiago, gizonezko gerlari eta matxoan. Eredu horiek nire etsaiak dira. Konbentzituta nago gizon-emakumeek ulertzen ez duteno beraien baitan feminitate eta maskulinitate eredu bat dagoela eta bien arteko oreka propio bat atxeman behar dutela, munduko iraultza guztiak eginda ere gauza bera izanen dela. Gizonezkoen ereduari bagabiltza beti, indarra, lehia, konparaketa eta 1etik 10erako zerrendak hobesten, iraultza guztiek porrot eginen dute. Ohartzen naiz, horren aurka borrokatu arren, hainbat gauza nola barneratuak ditugun. Gizonezkoen objektu bat bezala begiratzen dugu emakumea, baina ez gara ausartzen gizonezko bat enpatiaz begiratzera, homosexualitatearen tabua sortuko delakoan. Zerbait goxo ez dagoeno gure baitan onartua, amorrua ez deno baztertua, horixe elikatzen ari gara. Kirol emankizunetako hitzak entzuten ditu-

Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz.**

**BFA DFB**  
Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia



gunean, “eraso egin dute”, “oldakorrak izan behar gara”, “ez diegu minik egin”... Ostia! Non gaude? Zertan ari gara? 30.000 pertsona doaz hori ikustera eta gero mundua aldatzeko iraultza nahi dugu? Hor oker bat dago. Ezinezkoa da mundua aldatzea eredu horiek aldatu gabe.

### Horregatik ez duzu sekula bozkatu?

Irratiko lanari esker, ikusi ditut politikariak, ezkerreko zein eskuineko, sorbaldak elkarri jo eta aitzina. Bakoitzak heien ideiak, baloreak eta gizarte ikuspegiak dituztela esango dizute, gizarte ikuspegi horiek obratzea dela heien lana, baina gero *tururu!* Funtsean, zer du Kontseilu Orokorrak? Lau sos eta lau sos horiek kudeatzea da dena. Sinetsarazten digute gure onurarako ari direla, baina ez, kudeaketa lana baizik ez dute egiten: petatxoia hemen, elkarretaratzea han, hango inaugurazio... Ez dituzte jendeen zinezko beharrak lantzen. Ilusioa pizten eta errotondak egiten dizkigute, besterik ez. Uste dute gu tontogiak garela ñabardurak ulertzeko, amets horretan mantentzen gaituzte, eta izugarria da nolako jarrera dugun politikarien aitzinean. Heroiak bezala ikusten ditugu. Pastoralera Lasalle zikoina hanka-luzea agertzen delarik denak hasten gara “hor da...” elkarri begira. Nolako sumisioa daukagun! Guk ditugu ospetsu bilakatzen, beraiek ez dira deus, guk ematen diegu direna. Jende horri delega-

## OFF THE RECORD

### Eskolan

“Nire bizilagunak bost hizkuntza menperatzen ditu, ingelesa barne, eta beti dio Euskal Herrira etorri denetik ez duela inoiz ingelesik erabili. Zer ari gara, beraz, eskoletan ingelesa sartu nahian horri esker gure haurrek lanbide bat atxemanen dutela sinetsita? Zergatik ez txinera sartu? Edo turkiera, badaezpada? Nork daki, egun batez turkiarrek hegan dabiltzan alfonbra numerikoak asmatzen badituzte sekulako aukera ekonomikoa izango da, eta funtsean, ez al gara gure haurrei eskolan mundu ekonomikorako ikasgaiak ematen ari?”.

tzen diogu gure ahalmena, eskolari gure haurren heziketa delegatzen diogun gisan, eta hola ez dugu gure egitatez damutzerik. Haiek dira ustelak, haiek dute lana gaizki egiten. Beti da besteen errua. Besteak bai, baina gu zer? Non kokatzen gara? Nik ez daukat nire burua ekintzaile politikotzat, nahiago dut nire burua esparru kulturalagoetan kokatu eta hortik eragin.

### Esparru kultural horretan hitza duzu lan-tresna nagusi. Nola bizi duzu bere kamustea, bere debalutzea?

Minez. Hizkuntza bat gozatzeko da. Etengabe arraberritu behar da, birsortu, eta tamalez oso zaila da hori gaur egun Euskal Herrian egitea. Euskalduntzeko dugun tresna garrantzitsuena eskola da, eta zoritxarrez, ume batentzat eskola da munduko gauzarik aspergarriena. Handik ateratzean, kalean, oxigenoa erdarekin kausitzen du. Hizkuntzak bizi behar badu, eskolatik hainbat ikasgai ezdeus kendu beharko dira, eta horien ordez argota, errespetu gabeko hitz kaskarrak eta jolasak sartu beharko dira. Euskarak hori behar badu bila ditzagun pornografoak, anarkoidak eta txintxoak ez diren guztiak, umeek beraien hizkera erabiltzeko gaitasuna ikasi eta gozatu dezaten. Hizkuntzarekin loturik bada askatasun bat, norbetea eta gainontzekoek onartzen dutena, baina tamalez Euskal Herri hau oso txintxoia da, eta horrek sortzeko libertatea kentzen du, baita hitzen arloan ere. Galzorizko egoera bati lotuegi gaude, perfektuki mintzatzeko obsesionaturik. Baina ez, utzi dezagun hizkuntza bere bidea egiten, goza dezagun libreki. Hori bai, gozatzeko mugak apurtu behar dira, txintxotasun bat hautsi, tabuak eraitsi... Debekuak hautsiz dira gauzak gozaten, eta euskarak bere esparru sozialean, debeku horiek astindu, irauli, hautsi eta gozatu behar ditu. ■





# Bekatutik libre?

“Substantzia bakar batek ere ez dizu lagunduko eskuadratik gola sartzen”. Egia da Realeko jokalaria Xabi Prietok dioena. Baina ez da nahikoa arrazoi futbolariak dopinaz baliatzen direla ukatzeko, debekatutako substantzia batzuek errendimendua hobetzen lagundu dezaketelako.

| JON TORNER ZABALA |

Argazkia: dondenacio.com

ORAINGOZ kasu bakan batzuk besterik ez dira ezagutarazi, eta ezin dezakegu esan dopina praktika orokorra denik futbolean. Dena den, Carlos bezala sinatzen duen internautak *Que viva el deporte* blogean idatzitako *El dopaje en el fútbol* (Dopina futbolean) artikuluan dioten bezala, eliteko kirolari atxikirik doakion ezaugarria da dopina, baita futbolari ere: “Batzuek esango dute futbolak osagai tekniko handia duela, eta ez duela zentzurik dopatzeak. Baina eliteko kirolaren esentzia gaitasun fisikoa da. Hura gabe, kirolari batek ezin dezake azkartasunez erreagionatu”. Dopinaren aurkako kontrolak txirrindularitzan bezain zorrotzak ez direla erakusten duten datuak ere ematen ditu. Esaterako: Frantziar, urtero, hamar ziklistatik batek pasatzen ditu kontrolak. Futbolean, bi milatik batek.

Bestalde, 2002an *El País* egunkarian plazaratutako *Al fútbol el EPO le va bien* (EPOa futbolari ongi doakio) artikuluan testosteronaz eta haren deribatu sintetikoaz –esteroide anabolizatazaileez– mintzo da Alejandro Lucia kazetaria, masa muskularra handitzen duten heinean. Halaber, eritropoyetina (EPO) eta haren deribatuak ditu hizpide. “Botika horiei esker, oxigeno gehiago garraia daiteke odoletik muskuluetara, eta kirolariaren gehienezko oxigeno kopurua (VO2) hobetzen da”, dio Luciak. “Futboleant, VO2 handitu izana batez ere sumatuko litzateke *sprint* baten osteko errekupeazio gaitasunean”.



Frantziar, urtero, hamar ziklistatik batek pasatzen ditu kontrolak. Futboleant, bi milatik batek.

## Fuentesen paperak

Reala zipriztindu duen auziari dagokionez, Espainiako Dopinaren Aurkako Agentziarentzat osasun publikoaren aurkako delituaren zantzuak daude, ustez Eufemiano Fuentes medikuari erositako sendagaiak ez daudelako baimendurik Espainiako Estatuan, eta ilegalki eraman zituztelako Donostia. Nazioarteko Agentziak (WADA), ordea, oraingoz esku ez hartzea erabaki du, substantzia horietako batzuk ez direlako ageri produktu debekatuen zerrendan. Esaterako, Thioctacid (antioxida-tzailea) eta Thym-Uvocal (sistema immunologikoa indartzen du). Actovegin (behi-odolaren estraktua) substantziaren kasua ere konplikatu da, produktu debekatuen zerrendan sartu ala ez eztabaida-iturri agortezina delako, Carlos Arribas eta Juan Jose Mateo kazetariak *El País*en azaldu duten moduan. Fuentesek ustez Realari saldu zizkion substantzietako bakar bat besterik ez da sartzen argi eta garbi zerrenda horretan: detektatzerik ez dagoen Igf1 delakoa, organismoak hazkunde hormonak naturalki sortzea errazten duen proteina.

Ikusiko dugu hau guztia nola amaituko den. Gaur gaurkoz ez dago frogariki bakar bat Reala dopinarekin lotzen duenik. Ezta futboleant ohiko praktika dela erakusten duen kasurik ere. Baina egunen batean azaleratuko balira, dagokion oihartzuna eman beharko litzaioke, eta neurriak hartu, futbolak zein indar duen guztiok dakigun arren. ■

Bertsio osatua, argia.com-eko *Slump* doktoarearen zaintiratu blogean.



FILIPINAK

# Kanposantuko herria

Manilako periferian auzo pobreak ugalduz joan dira azken hamarkadetan. Landa eremuetatik hiriranzko migrazio masiboak jendea egoerarik eta lekurik xelebreenetan bizitzera eramane du. Navotas hiriko kanposantua da horren adibide.

| PEDRAM YAZDANI |  
Testua: Agurtzane Belaunzarán







**Jolasleku aproposa.** Lehen begiratuan, munduko edozein hilerriren planta du Navotasekoak, etorbide nagusiaren amaiera aldera ordea, oilarren kukurrukua, bozgoragailuetatik karaokeko doinuak eta mugimendua nabariak dira. Koloretako nitxoen ondoan zientoka txabola daude, bizidunek eta hilek konpartitzen duten lur eremu honetan. Leku atipikoa, dudarik gabe. Azken hamarkadetan haziz joan den bizidunen hilerriak herri baten izaera du: saskibaloia kantzak, dendak, janari prestatua saltzen duten saltokiak, Internet guneak, jolas-makinak, billarreko mahaia, oinarritzko zerbitzua eskaintzen duen osasun zentroa... Auzo elkarteak, gainera, eskola txiki bat eraiki nahi du haurrentzat, baina ez dute baliabide ekonomikorik. Dozenaka ume biltzen da kanposantuan orduro eta kanposantua bera jolasleku bihurtu dute. Nitxotik nitxora saltoka aritzen dira, lasterka, edota nitxorik garaienak eskalatzen dituzte abilezia handiz.







**Itsasoari lotuta.** 350 familia inguru bizi dira hilerriaren eta itsasoaren arteko lur eremu estuan. Navotasek Filipinetako arrantza porturik handiena du eta biztanleriaren %60 arrantzari loturiko lanetan aritzen da. Agosto Tamber (beheko irudian) goizero ateratzen da arrantzara eta egunik onenetan 400 peso (8 euro) irabazten ditu. Egurrezko txabola batean bizi da, hamar senitartekorekin batera. Etxe batzuk nitxoan gainean eraikita daude; euriteetan salbu geratuko diren etxe bakarrenetakoak izango dira. 2011ko irailean esaterako, Manilako kostaldean jo zuen tifoia ehun bat txabola suntsitu zituen. Itsasoarekiko hurbiltasunak, zaborrak eta lekuaren izaera zingiratsuak arazoak sortzen ditu euriak jotzen duenean.





**6. blokea.**

Leia Palomak (irudian) zigarroak, pospoloak, goxokiak eta ura saltzen ditu hilerriko kale nagusiko mausoleo batean: “Gaur lau hileta izango dira eta asko saltzea espero dut”. Bagong Silang izeneko auzo elkarte astero biltzen da, beharrak eta kezkak jaso eta Udalari jakinarazteko. Kanposantuko herriak berak (6. blokea) eta inguruko beste bost auzo txikik osatzen dute elkarteak. 6. blokea da gunerik delikatuena eta boluntario talde bat arduratzen da auzoa zaintzeaz.



**Herrialde gainpopulatua.**

Filipinetako biztanleria bikoiztu egin da azken 25 urteotan. 95 milioi biztanle dira gaur egun eta %10 atzerrian bizi da. Benigno Aquino herrialdeko presidentek onartu du gainpopulazioa traba dela pobrezia aurre egiteko. Gobernuak Familia Planifikazioari buruzko lege proiektua aurkeztu zuen 2011n, baina Elizak botere handia du eta proiektuaren aurka dago. Sexu hezkuntza eta antisorgailuen erabilera bultzatzeko kanpainak oztopatu ditu, besteak beste.



DANI BLANCO

**Amaia  
Lasa  
Alegria**



IDAZLEA

# Feminizidioa

*Gizona bihozgabeba da beste gizonekin,  
baina askoz ere bihozgabeagoa emakumeekin*

Oscar Wilde

HITZ HAU Latinoamerikan sortua da, Mexikon zehazki, duela hamalau urte Ciudad Juarez hasi baina oraindik bukatu ez diren emazteen erailketaz mintzatzerakoan, asko baitira tortura galanten ondorioz hiltzen direnak.

2013 urtean Indian gertatutako emakumeen aurkako bortizkeria eta erailketen oihartzunak apaldu direnean, gurean, Antsoainen hain zuzen ere, bere bikotekideak labankadaz hil du andre bat, ondoren, Acapulcon, Mexikoko hiri honetara bizitzaz gozatzerara joan ziren sei emakume bortxatu dituzte. Oraindik hango garrasiak isiltzeke daudenean gure lurraldetik gertu dagoen Guadalajaran gizon batek emakume bat hil du duela egun gutxi.

Emakumeen aurkako bortizkeria munduko komunikabide guztietan egunero irakurri daiteken albiste tamalgarri bat izaten da, ez dira berri guztiak argitaratzen hala ere.

*Hainbat gobernu ez ditu taxuzko neurriak hartzen, oraindik patriarkalak diren gizartean sortuak baitira agintari hauek*

Badirudi amaierarik ez duela bortxa fisikoa, sexuala eta psikologikoa jasaten duten emazteen kopuruak. XXI. garren mendean oraindik andreen odol gorri, balioetsua edonon jarri. Nueva Delhi, Ciudad Juarez, Maroko, Euskal Herrian... emazteak erailak izan dira, ez bakarrik ezezagunen esku artean, berak maite dituzten senar, senargai, aita eta zenbait kasutan semeen eskuetan ere.

Hainbat gobernu ez ditu taxuzko neurriak hartzen, oraindik patriarkalak diren gizartean sortuak baitira agintari hauek.

Biktimismo antzu baten zuloan erori nahi ezean, zaurien saminean ez gelditzearren bihotzak, buruak zutitu eta gero emakumeak elkartu egin dira bidegabeke-

ria ikaragarri hauei aurre egiteko, ez bakarrik mobilizazioaren bidez, ikerketa sakonen bitartez, gertatzen ari zaiena izendatzeko. Jasandakoa kontzeptualizatuz sentimendu nahasien zurrumbilatik argira ateratzeak lagunduko balie bezala.

Horrela Diane Russel antropologoak dio “Gizonen eskuetan erailtzen diren emazteak emakume izateagatik soilik” bezala definitzen du feminizidioa.

Tortura eta heriotza horietatik bizirik irauten dutenak ez dira horretan bakarrik geratu, jazoera horiek juridikoki zehazten ahalegindu dira, beren herrietako agenda politikoetan sartzen biderik hoberenak proposatuz, gizarte guztiari dagokion ataka honetatik behin betiko irtetearren.

Feminizidioa gizarte maila guztietan gertatzen da, honen arrazoi nagusietako bat gizonak emaztearekiko duen pertzepzioetik dator. Senar, gizon, maitale horiek andrea berea den gauza bat lez ulertzen dute. Askatasunik gabeko bigarren mailako pertsona bat bezala hartzen dute, erabaki propioak hartu ezin dituen izakia, gizasemearen kontrolpean egon behar duen emekia, gizasemeak pentsatutako arauekin bakarrik jokatu, bizi behar duena.

Nik ez dut pentsatu nahi hala ere, XXI. gizaldia aurrekoak baino okerragoa denik emakumearekiko.

Gogoratu dezagun bestela Erdi Aroa “torturaren urrezko aroa” izenez ezagutua ere, zein krudela izan zen emakumearekiko bereziki. Torquemada, De l’Ancre bezalako inkisidoreak zenbat emazte sutara bota zituzten Eliza Santuaren izenean gainera.

Egun egiten dena gertaerarik izugarri-nari ere izena ematea da, argira ekartzen saiatzea.

Jakina, guzti hau ez da nahikoa, hildakoa ez du pizten, zauriak, saminak ez ditu saihesten, aurrerapausoak urriak dira eguneroko gehiegikerien ondoan, baina andreak aurrera egiten duen bitartean gizonak beren bizitza osoa eraldatu beharrean daude. ■







## ZORTZIKO AMAIGABEA

MAHAI  
JOLASA

- 1<sup>9</sup><sub>7</sub> EUSKAL alderdiek ez dute euren artean ITUNIK EGITEN, FRONTISMOA SAHESTEARREN.
- 1<sup>8</sup><sub>0</sub> Alderdi ARROTZAK elkarrengana bildu OHI DIRA ETA ez da FRONTISMORIK AIPATZEN.
- 1<sup>9</sup><sub>3</sub>6 EUSKAL alderdiak KOALIZIOAREN beharrik BALU, alderdi ARROTZAREKIN behar du.
- 1<sup>8</sup><sub>4</sub>1 alderdi ARROTZAK ez du euskal alderdi RIK deitzen KOALIZIORAKO (IKUS 2)
- 1<sup>5</sup><sub>1</sub>2 DEMOKRATIKOa OMEN da ARROTZAREN <SENTSIBILIDADEa> ere ORDEZKATURIK
- 1<sup>6</sup><sub>2</sub> ARROTZAREN SENTIBERATASUNA :  
DEMOKRATIA OMEN da 35 URTEOTAN EUSKAL alderdiak SISTEMATIKOKI BAZTERTzea, hala NAFARROAN NOLA IPARRALdean  
ez da <ZEHARKAKOTASUNIK> aipu.
- 1<sup>7</sup><sub>8</sub>9 EAEN ere, PARADA IZAN dutelarik (IKUS 6) (IKUS 4)
- 1<sup>8</sup><sub>1</sub>2 Alderdi ARROTZAREN helburua IZAN ETA DA GURE ARROTzea (IKUS CAMPION)



Oier Araolaza

DANTZARIA ♦



INIGO AZKONA

# Krisia? Zer krisi?

LAU URTEOTAN askotan akordatu naiz gutun honekin. Orain lau urte krisia bazetorrela entzuten hasiak ginen, baina artean, batez ere entzun. Harrezkero antzeman dugu, bai horixe. Eta ni Monicarekin akordatzen naiz. Zertan eta nola ibiliko ote zen lau urte latz hauetan. Hara zer idatzi zuen orain lau urte:

“Krisia? Zer krisi? Langile asko bezala 17 urte nituenetik ari naiz lanean. Horrek 30 urte egiten ditu lanbidean, eta Gizarte Segurantzaren arabera beste 18 falta zaizkit erretiroa hartzeko. Baina Gizarte Segurantzak ez dakiena da nire gorputza ez dagoela horretarako prest. Ogibideko hogeita hamar urte hauetan makina bat jardueratan aritu naiz. Ume-umetatik dantzaria izan nahi nuen, eta hara zer naizen: ekoizlea, koreografoa, banatzailea, diruzaina, furgoneta gidaria, enkarguen neskatala, informatikaria, irakaslea eta diseinatzaile grafikoa, besteak beste, eta noizean behin, ikasi nuena, dantzaria.

Hau ez da kexa bat, ondo dakit ia inor ez dela aritzen nahiko lukeen horretan, baina, atsegin dudana egiteagatik pribilegiatu bat naizela esaten didan hurrenari belarrondokoa emango diot. Ez daukat hitzarmen kolektiborik, ez dizkidate ordu estrak ordaintzen, urteetan izan naiz oporrak zer

*Hau ez da kexa bat, ondo dakit ia inor ez dela aritzen nahiko lukeen horretan baina, atsegin dudana egiteagatik pribilegiatu bat naizela esaten didan hurrenari belarrondokoa emango diot*  
(Monica Runde)

diren ere jakin gabe eta nire lan ordutegia 24 ordukoa da, astean zazpi egunez. Nire burua esplotatu dut urte askotan amets baten truke. Edozein pertsonaren modukoa naiz, zenbaitetan, nire lan-jardunaren erdian txalotu egiten banaute ere. Bai, nire lanaldiaren erdian, emanaldiaren ondoren gauzak biltzen, furgonetan sartzen, jantziak garbitzen eta abar jarraitzen baitut.

Orain, mundua krisian dagoen honetan, ez naiz hain bakarrik sentitzen. Denek sufritzen dituzte gure prekarietate eta lan etenak, soldata eta katxeen izozteak (guk urteak daramatzagu), edozer gauzatan eta edozein tokitan lan egin beharra, 12 hilabetera kobratzea eta ez hilabete bakoitzaren 30ean, eta enpresario eta pluriempleatua bihurtzea bestela ez daukazulako lanik”.

Sektore baten argazkia da Monicak eskaintzen duena. Runde du abizena Monicak, Monica Runde. Frantzia, Kanada eta Ingalaterran baleta, dantza garaikidea, pianoa, antzerkia, argizatzea eta kultur ekoizpena ikasi eta 10 & 10 dantza konpainia sortu zuen Monica Rundek. 2000. eta 2004. urteetan Espainiako eta Costa Ricako Dantza Sari Nazionalak irabazi zituen. ■



DANI BLANCO



Edu Zelaieta

♦  
IDAZLEA

# Klasistak ere bai

ESKOLETAN aurre-matrikula egiteko kanpaina bukatu berria da. Jakina da gurasook onena nahi izaten dugula geure seme-alabentzat; hori dela eta, ikastetxe egokiena hautatzea xede dugu halako epe batean. Gurasoen asmo oneko aukeraketa, bistan denez, balore nagusi batzuen arabera egiten da eta, nola ez, seme-alaben geroa presente dugula.

Baloreak praktikan jartzeko ariketan, baina, lumatza ikusten zaigu: egun, ikastetxea hautatzeko baliatzen den irizpide funtzionaletako bat, dena delako ikastetxean zenbat etorkin dauden jakitean datza. Ondorioz, etorkin gutxien dituzten eskolak

gero eta gehiago estimatzen dira bertan jaio garen aita-amon artean.

Haatik, eskola publikoko ikasle etorkinak ez ditugu arrazagatik soilik saihesten; izan ere, etorkina ekonomikoki pobrea den atzerritarra dugu: kanpotik etorritako aberatsari ez deritzogu etorkin. Hortaz, etorkinei izkina egiteko estrategia estatus sozio-ekonomikoari ere badagokio, ohiko sosen aferari; kulturen arteko talkak lotura zuzena baitu sakelen arteko talkarekin. Etxeko hezitzaileok arrazistak ez ezik, klasistak ere bagara. ■







**Mikel Asurmendi**

◆ ARGIAKO KAZETARIA

## Konbentzituta nago, zalantzarik gabe

AIETEKO ADIERAZPENEA zabaldu zenetik luze joan da, eta are luzeago bake prozesua abiatu nahi dutenentzat. Denbora kontua da. Denbora, dirua bezala, neurtezina da baina. Berau nork kontrolatzen duen arau.

Azken 30 urteotako abangoardia –eta honen akolitoak– ari dira bake prozesua finkatu nahian. Etsai zuzenek, bi estatuek –eta hauen akolitoek– euren erabateko garaipena ezarri nahi dute, *sine qua non*. Abangoardiak hamaika pauso emanda ere, azkena du beti eskas. Autosuntsiketa eskatzen diote etsaiek, baita autokritika eskatu ere. Hau ere eskas du eta.

Trantsizio garaian, estatu(ar)ekin negoziazioa *Luz y taquígrafos* zirela medio egingo zela zioen abangoardiak. 30 urteren ostean, Brian Currin buru, Nazioarteko Harreman Taldearen ardura da gatazkaren amaiera “ordenatua” bideratzea. Nork daki ezer, baina? Lehendakari berri Urkulluk dioenez, bera ere diskrezioz ari da. Presoen gaiaz ari zen. Adibiderako diot.

Botereek –eta hauen akolitoek– daramate bake eta normalizazioaren balizko prozesuaren kontrola. Halaber, nork “kontrolatzen” ditu kontra-boterean jardun dutenak, eta hauen akolitoak? Alegia, auzi historiko politikoa eta 30 urteko gatazkaren beraren ondorioak ebatzi behar dituzten eragileak –Lizarrar-Garaziko Akordioa eta Loiolako elkarriketako eragileak gogoan– ez dira jada “agerian” ari. Nazioarteko Harreman Talde aditu batek eginen du “euren” lana?

Garaipena? Porrota? Independentzia eta Sozialismoa edota

Euskal Estatu sofaflamak (h)istori(o)a izatera pasa dira une batez. Ados. Beharko! Edo, ez ados. Ez beharko ere! Baina, gutxienez, aitor dezagun abangoardiak –ez honen akolitoek eta euskaldunok orobat– parlamentatzeko eta negoziatzeko ahalmenik ez dutela –edo dugula–.

Anartean, politikariek nola, politika aztertzen duten eguneko kazetariak espiritu honen hitzak barruratu behar dituzte: “*Estoy absolutamente convencido*” eta “*sin duda alguna*”. Iturri fidagarriak dituzte, hara! Edota, bestera, iturri horiek ezean, bakoitzak bere parrokia aseko dituen erretorika berriak “asmatzen” ditu. “Betiko iturritik heldu den ur berria” edatea da kontua, antza.

EAEko telebista publikoaz (ETBz) eta gure jendarteaz badi-tut ere zenbait galdera eta aburu: Zer espero daiteke 30 urte eta gero, “igandeetan 14 minutuko euskarazko albistegiak eta gaztelaniazko 65 minutukoak” onartzen duen jendarteaz? Edota, telebistako saio izarra *El conquistador* duen populazioaz. Sareko %24 ikusleen arreta bereganatzen duen jendarteaz? Zer espero daiteke EITBko publizitate eslogan batek “Ni ez naiz ergela” edo “*yo no soy tonto*” etengabeko matraka “jasaten” duen gizarteaz? Zer espero daiteke “gure” gizarte zibilaz? Boterea ez da tontoa, ez! Ergela gizartea –gehiengoa?– bera da.

Ulertzekoa da bai –ez onartzekoa horregatik–, herri honen delako abangoardiak heldu den aro berriari zioen “beldurra”. Izan ere, hasi orain desobedientzia zibila aktibatzen. ■



## BERTSO BERRIAK

Seaska



DANI BLANCO

**Odei  
Barroso Gomila**



**Doinua:** Lagundurikan danoi.

Hezkuntzaren eremu estu-zabalean konfiantzarik ez da anitzen elean. Baldin korapilorik badu sabelean ikusi eta gero Hendaian kalean umeak banderola baten gibelean.

Seaskari kulunka goxo eragiten esperantza bihurtu ez dadin etsipen. Ikusi dugu nola batzuek dakiten beraien kontzientziak lasai egon dituen teitaturik ez duten paretak egiten.

Orain mende t'erdiko arauen katean euskara preso dute ikasgai batean. Curriculumuma utzi nahi dute atean berdin segiko dugu garen bitartean parentesi bat haien legeen artean. ■







# Ahalmen urritasuna! ikusezina usu, trabagarria beti

**PARTAIDETZA  
EGUNA**

otsaila  
**23**  
larunbata



Zuen emaitza bidal :

**Integrazio  
Batzordea**

Larraldea Amotze auzoa  
64310 Senpere

Hegoaldetik : BANKOIA 0138 0010 49 0010582377

**Ezberdintasuna barne hartu nahi duen eskola baten PARTAIDE izan.**

LAGUNTZAILEAK



Enbata

Ekaitza



le journal

hitza





ERDIKO KAIERA

KARMELE JAIO



## «Egunerokoaren argazki ere badira ipuinok, baina horixe dira, ipuin»

*Ez naiz ni ipuin liburua argitaratu zuen udazkenean. Bizitzaren erdigunera iritsitako pertsonaiak dira gidari, haien ezinak ipuinetako gai nagusi. Zahar ez badira ere, adin batera heldu dira denak, baina ez, zuzen, heldu nahi zuten lekura....*

| MIEL A. ELUSTONDO |  
Argazkiak: Zaldi Ero

HAMABI IPUIN bildu ditu Karmele Jaiok (Gasteiz, 1970) liburu berrian. *Hamabost zauri* idatzi zuen 2004an, eta bidea egin du harrezkero, *Amaren eskuak*, *Zu bezain abul*, *Musika airean* eta oraingo *Ez naiz ni* (Elkar, 2012) argitaraturik. Lan berrian, lehen ere arrotz ez zaizkion gaiak erabili ditu: gizon-emakumeen arteko harremanak, komunikazio ezinak, maitasun eta maitasun eza... Eguneroko bizimodu zitala-

ren kronika izan zitezkeen testuok, baina egi-leak ez du zalantzarik egin: ipuin dira, adin jakin batera heldu eta egunero bizi direnak.

Zer gertatzen da bizitzaren erdigunera iristean? Liburu honetako pertsonaiek, behintzat, euren burua errekonozitzeko zailtasuna dute. Bidearen zati bat egin dute, heldu dira norabait, eta, bat-batean, zalantza: “Hona heldu

## Kritikariak gai ote?

HAIN GARA buruz jantziak, emetasunez beztitzen dugu emakume idazlearen lana. Karmele Jaiorena, kasu honetan. Hain gara sakoneraino argiak, emez eta leunez janzten dugu zehatz deskribatzeko gai ez garen hura. Hain gara jakintsu harroak, feminoz eta maskulinoz jardun behar izaten dugu, beste zerrauts suerterik ez gure garunean. Hain gara luma-iaioak, ‘kostunbrismo heterosexual’ esan eta kitatzen dugu auzia. Hain gara zorrotzak, ipuinok ‘emakumeen ikuspegitik’ kontatuta daudela esaten dugu. Hain gara iraultzaile usteko, ipuinetako emakumeak dukeen ‘rol tradizionala’, transgresio eza, salatzen ditugu.

Hain gara gizonezko, ez gara betaurrekoak erantzirik irakurtzeko gai.

nahi nuen? Lehen nintzen hura naiz oraingo hau?”. Zalantza da nagusi pertsonaia hauetan, hutsunea, eta antsietatea. “Denbora aurrera doa”, diote. Konturatu dira... Gazte zarenean ere konturatzen zara denbora badoala, baina halako adin batera heldu eta konturatzen zara benetan egiten duela aurrera denborak. Eta, orduan, urgentziak datoz: gauzak egiteko.

### Ordu arte egin ez dituztenak egiteko...

Batzuek, ordu arte egin ez dituztenak egiteko. Beste batzuek, iragana errekupeartzeko, hura idealizatzeko. Baina iragana ez dago errekupeartzetik. Joana joan da, atzerantz egiteak ez du balio. Iragana gure bizitzaren parte da, baina desagertu da, oroimenean besterik ez dago. Zer da, azken finean, bizitza? Bide batzuk hartzea, eta beste batzuk baztertzea. Pertsonaiok heldu dira halako adin batera, eta gogoan hartu dituzte bazterreraren utzitako bideak. “Bide hura hartu izan banu? Halakorekin joan izan banintz?”.

### Noiz da “bizitzaren erdigunea”?

Ez da adin kontua, norberaren esperientzien arabera baizik. Batzuek berrogei urte pentsatuko dute, baina izan litezke berrogeita hamar, edo hogeita zazpi! Bizitzan izandako esperientziak agintzen du, ez adinak. Zenbait gauza eginda izateak markatzen du hori. Batzuek goiz izaten dituzte umeak, adibidez. Eta umeak hazten ari direla konturatzen direnean, bizitza bera ere aurrera doala konturatzen dira. Hutsunea dator orduan, edo etor liteke. Ipuinen batean horixe ikusten da. Seme-alabak hazten, familia “apurtzen” ari dela ikusten dutenean azaltzen da hutsunea, adibidez.

“Liburuko pertsonaiak” ari zara beti. Zure bizi-espereziarrik ez dago batere *Ez naiz ni* lanean? Zure adinetik ez dago batere?

Bai, jakina. Idazten den horretan beti dago norbera, ez gertatzen diren gauza guztietan

—ezinezkoa litzateke—, baina bai pertsonaiak eta bai egoerak norberaren burutik sortuak dira, norberaren barruan daude nola edo hala. Finean, norberaren inguruan dagoen atmosfera bat da, doinu bat, kezka, ezinezgona...

### Zergatik jo duzu bizitza erdigunera, zuzen? Zerk eraman zaitu horra?

Zaila zait horri erantzutea. Neuk ere ez dakit. Idazten hasten naizenean ere ez dakit, ziur, zer idatziko dudana. Ipuinak idazten hasten naiz, idazten dut bat, bi, hiru... eta dozena erdi idatzita ditudanean, konturatzen hasten naiz badela gai bat errepikatzen ari dena. Orduan, liburuari osotasuna eman nahian, hortik jotzen dut, beharbada neure burua horretara behartzen dut. Baina ez da aurretik hartutako erabakia. Barruan nituen gaiak lantzen hasi, eta idatzi ondoren konturatzen naiz gai hori zebilela nire barruan.

### Inportantea da —komenigarri da, hobe da, lagungarri da...—, ipuin liburuak delako osotasun hori izatea?

Ez dakit osotasuna inportantea den, baina atmosfera bat izatea uste dut ona dela. Liburua da, osotasun bat du, eta irakurleari giro batean sartzen laguntzen diola uste dut. Ipuinak ezberdinak izan arren, atmosfera berekoak dira. Liburu batean lanean ari naizenean, horretan saiatzen naiz, batzuetan lortzen dut, beste batzuetan ez. Baina nire burua gehiegi behartu gabe egiten dut. Begira zer gertatzen den gaur egun musikan: ez dago diskorik, kantua da, kantu bat, unitatea. Ipuinetan ere, berdin, bakoitzak bere balioa du, modu independentean. Hala ere, ipuin hori antzeko mundua deskribatzen duten beste zenbait ipuinekin batera jarriz gero, emaitza hobea da, indar handiagoa du. Irakurle naizen aldetik diot!

“Maskulinoa neutroa iruditzen zaigu oraindik eta, femeninoa, aldiz, markatua”

*Ez naiz ni* irakurtzen ari nintzela, zer moduz ari nintzen galdetu zidaten ondotik. Nik, gustura irakurtzen ari nintzela, ipuin ez ezik, adin batera heldu direnen harremanen kronika iruditzen zitzaidala liburua esan nuen.

Partez bai. Ipuinen parte handi bat horixe da, egunerokoaren argazkia, ingurukoaren erretratua, gertu dituzun pertsonaia, gauza eta egoeratik egindako lapurreta. Ondoren dator haiek zentrifugatzea eta idaztea. Hala ere, ipuin dira, horretan ez dut zalantzarik, nahiz eta parte handi bat egunerokoaren argazki ere izan. Ikusten dudana hori jasotzen dut.

“Egunerokoaren argazki”, esan duzu. Ez dakit jabetzen zaren zenbateraino diren errealitate zure argazki horiek.





Nik uste oso errealitate direla ipuinok. Denerarik esan didate. Batzuek oso dramatikoak ere badirela esan didate. Nik, aldiz, oso errealak direla esaten diet, eta egunerokoak. Bizitzaren erdigunera iritsi dira pertsonaiok, konturatu dira bizitza ez dela gauza erraza, borroka dela. Bizitzaren erdigunera heldu eta gauza asko gertatu dira, gero eta pisu handiagoa daramazu bizkar-zorroan, harri bat hemen, harri bat hor... harri asko azkenean. Ez, bizitza ez da gauza erraza, borroka da, maila guztietan. Diru asko duenak eta lanik ez duenak, denek bizi dute borroka hori, miseria asko. Liburuko pertsonaiek hori erakusten dute, bizitza dela, azken finean, eguneroko zerbaiti aurre egitea.

#### Non ikasi duzu hori?

Bizitzak berak erakusten du...

**“Dugun irakaslerik onena bizitza da”, Mikel Arregiren poema bat, noizbait.**

Bizitzak erakusten dizu, zeure bizitzak, lagunena, ingurukoena... fikzioak ere erakusten dizu, irakurri duzunak, ikusi duzun filmak. Denak erakusten du.

**Zer aldatu da *Hamabost zauri* lehenengo Karmele Jaio hartatik honako honetara?**

Urteak joan dira, harri gehiago daramat nik ere bizkarrean! Kar, kar, kar... Horrek garrantzi handia du idazteko garaian. Esperientzia gehiago pilatu dituzu, gauza gehiago gertatu zaizkizu, eta hori nabari da. Idazteari

**“Askotan, denbora lapurretan ibili behar izaten da ezer idazteko”.**

dagokionez, *Hamabost zauri* hartu, publikatu nuen lehen lan hura, eta oraingo *Ez nai z ni* hau, eta bada aldaketarik. Bereziki liburu honetan gertatu den aldaketa da, ipuinen lantzeari dagokionean. Orain luzeago ditut ipuinak, lehen ipuinak amaitzeko presa nuen. Orain ipuinari berari irteten utzi diot, esan nahi duena esan dezan denbora eman diot.

**Umorez jardun duzula esan zenuen liburua aurkeztu zenuenean.**

Umore ukitua, behintzat. Aurrekoetan ez zegoen horrelakorik, edo ezkutuan. Orain gogo handiagoz atera zait. Adina izango da! Zenbait egoeraren aurrean bi aukera izan ohi dituzu: negar egin, ala barre. Oraingo honetan barrea nahiago, barre neure buruari, neure inguruari, neure adin bereko jendeari...

**CAMPOS**

1921-ETIK, CAMPOS-EK  
HEGALUZE-KONTSERBA EGITEN DU  
DENBORAREKIN HARTUTAKO OHITUREI  
ESKER, HEGALUZERIK ONENA BILATZEN  
DU ZUK, GAUR, KALITATEZKO PRODUKTU  
GOZO BATEKIN GOZATZEKO.

Gure webgunean erosi: [www.clubcampos.com](http://www.clubcampos.com)



### Zer moduz hartzen zaitu kritikak?

Batzuetan ondo, besteetan gaizki. Kritikariaren lana da. Gurea, idaztea, ez haien lana baloratzea.

### Eta maskulinoa gora eta femeninoa behera hasten direnean?

Pauso asko egin behar ditugula uste dut. Egin izan dizkidaten elkarrizketa guztietan galdetu izan didate horretaz, edo aipatu izan didate: "Zure pertsonaia gehienak femeninoak dira". Oraindik arreta ematen du horrek! Gainera, liburua aztertu eta maskulinoak dira pertsonaia gehienak! Bestalde, inork ez dio gizonari esango: "Zure pertsonaia gehienak maskulinoak dira". Maskulinoa neutroa iruditzen zaigu oraindik. Femeninoa, aldiz, markatu behar den ezaugarria. Ezberdina. Urteak pasatu beharko dira, edo ez dakit zenbat denbora, epizentro hori mugi dadin.

### Kritikari asko ez ote den ari bere erdigunetik, idazlearen lana epaitzen.

Ezin da liburu baten kritika egin, lan hura irakurtzen ari zarenean gauza jakinen baten bila ibilita. Zuk nahi duzuna aurkitu ez duzunean, kritika. Hori ezin da egin.

Pertsonaia baten aipua ekarri nahiko nuke: "Anek ez dauka lan bat, lan asko egiten ditu, han-hemenka, gidoilari gisa. Telesailak, iragarriak, dokumentalak. Produkzio-etxeak enkargatzen dion guztiari baietz esan beharrean dago, egoera ez baitago ezezka hasteko moduan. Etxean egiten du lan. 'Kaka asko idaz-

**"Idatzi nahi duenak denetarik egin behar du, izan behar da hizlari, gidoilari, artikulugile, ikastetxeetan hau eta hura irakatsi... Horrek ez du errazten idatzi nahi duenaren lana".**

ten –badakizu–, lanpetuta". Horixe bai errealtatea, eta ez pertsonaiarena bakarrik.

Kar, kar, kar... Kasu horretan, asko idatzi behar izaten du, enkargu asko bete, berak nahi duena idatzi ahal izateko. Idazle izan nahi duenak denetarik egin behar du, izan behar da hizlari, gidoilari, artikulugile, ikastetxeetan hau eta hura irakatsi... Horrek ez du errazten idatzi nahi duenaren lana.

### Robert Laxalt idazleak esaten zuena hartu beharko dugu kontuan, orduan. Idatzi eta idatzi, azkar idazten ikasten da, behintzat.

Kazetaritza ere egin nuen garai batean, kiroltan izan nintzen, eta horrek ere azkar idazten irakatsi zidan. Baina ipuinak idazteko denbora gehiago behar da. Askotan, ez daukagun denbora! Lapurretan ibili behar izaten da ezer idazteko. Ez duzu idazteko ordurik, garai jakinik. Orain tarte bat, gero beste bat, parkean umeari begira zaudela ipuin bat amaitzen saiatzea... Ez da modua. Miraria da azkenean ipuina ateratzea!

### Idazten duzu, itzultzen dituzte zure lanak, eta Amaren eskuak film egingo dute. Estimatzekoa?

Horrek ere poza ematen du, jakina. Sekulako ikusmina dut. Aurten estreinatuko da, eginda dago-eta. Ez dut oraindik ikusi, baina laster da estreinaldi aurrekoa, eta ikusiko dugu. Gidoia ikusi nuen, zenbait gomendio egin nizkion Mireiari [Gabilondo], baina niretzat oso zail da gidoian idatzita dagoena irudietan ikustea. Ez dut eskarmenturik. ■





BIXENTE AMEZTOY  
(DONOSTIA, 1946 - VILLABONA, 2001)

# Arteak eta kazetaritzak bat egin zutenekoa

Heriotzaren hamargarren urteurrenarekin batera jarri ziren martxan artistaren handitasuna nabarmenduko zuten gorazarreak. Ederrenetako bat, iazko ekainean Villabonako Udalaren ekimenez antolatu zitzaion erakusketa, *Etxe ondotik*. 50 piezatik gora bildu ziren, artistak Villabonako Etxe Ondon eman zituen 30 urteetan (1970-2001) sortuak, bizitzan landutako teknika ugarien ispilu. Egunotan Donostiako Koldo Mitxelenara ekarri dute Villabonakoa. Berritasuna: Zeruko Argia aldizkarian egindako azalak laminatan argitaratu dituzte ARGIAK eta KMK, eta artistaren logotipoaz apaindutako karpeta batean bildu.

| GARBINE UBEDA GOIKOETXEA |

LURDES AUZMENDI erredakto-rearen eskutik heldu zen Bixente Amezttoy *Zeruko Argiara*. Ez zuen begiz jotako argitalpen bakarra izan. *Euskadi Sioux* aldizkaria ere –“pulpiturik ez duen jendearen lekua” omen zena, Amezttoyk Auzmendiri berari elkarrizketan esana ([www.argia.com/argia-astekaria/818/euskadi-sioux-ongietorri](http://www.argia.com/argia-astekaria/818/euskadi-sioux-ongietorri)) –bere artearen erakusleiho izan zuen. Barne orrialdeetako ilustrazioak eginez jardun zuen han. Batez ere azalak egin zitzaizkion eskatu zitzaion gure ARGIA zerutiarrean. Urtea eman zuen gutxi gorabehera, langintza horretan. 1978koa.

Elixabete Garmendiak gogoratzen duenez, irrikaz itxaroten zuten artistaren asteroko bisita. Lantzen ari ziren zenbakiari zegokion azala besapean hartuta helduko zen erredakziora, bertan zihardutenen ikusmina asetzerara. Freskotasuna ekarri ohi zuen, aire berria, eta zenbaitetan zaputzalditxoak ere bai, edo kexa, aurreko asteko azala beharko zukeen bezala argitaratu ez zelako; kontrastea, edo irudiaren definizioa, eta batez ere koloreak, bere jatorrizko irudian bezala inprimatu ez zirelako. Horrelako lanak hartu eta gero. Baina aurrera.



Gai korapilatsuak ilustratzea egokitu zitzaion Amezttoy azalgi-leari, 70eko amaierako garai latz eta nahasi hartan: Iberduero, Lemoiz, Pertur, Estatutua, Aberri Eguna, Britainiako marea beltza, Amnistiaren Astea, Bai Euskarari, Germanen heriotza Iruñeko San Ferminetan...

Azalera ekarritako gaietatik harago, grafismoak egiten zuen berezi argitalpenaren aurkezpen orria, ideiak adierazteko moldeak. Konbentzionalak, behinbat, ez ziren batere, garai hartan erreferentziatzat zituzten aldizkarietako portadekin alderatuta –*Punto y Hora*, kasura–. Denborak lagundu du artea eta kazetaritza batzeko egindako ahalegin hura baloratzen, sarritan asteroko zurrunbiloan lausotuta pasa zena

behar zuen neurrira ekartzen.

Baina harekin jardundako bati utziko diogu hizketan. Artistaren ekarpenak inpresionatuta, Villabonako erakusketarako koaderno itxuran bildu ziren azalen atarikoak idatzi zuen Joseba Sarrionandiak, eta orain KMn eta Argiako dendan eskuragarri jarri den bilduman ere, Bixente Amezttoyren 36 laminen aurkezpen orria duzue. ■



# Bixente Ameztoyren azalak



LAGUN BAT liburu-joslea zuela esan zidan behin aitak, eta etxean barreiaturik zebiltzan ARGIAK josi eta azalezatzeko emango zizkion. 18 edo 19 urte izango nituen eta artikulua idazten nituen lantzean behin *Zeruko Argian*. ARGIA lurrekoa zen jadanik, *Zeruko Argian* hura izenburuan eta Mikel Atxagaren prologoa babesgarriak ziren arren. Gordelekua ere kaputxinoena zen: Elixabete, Pilar eta Lurdesen bulegora inguratzen ginen noizean behin euskal herrietako punta guztietatik Joxemari, Ermiñe, Mikel, Felix, Txema, Koldo, Balere eta beste asko.

Bixentek ARGIArako portadak egiten zituen. Portadak gustatzen zitzaizkidan. Irudi enkantatuak ziren, xamurrak, umorezkoak. Koadro bakoitzak bazuen zerbait ustegabekoa. Susmatzen zen pintura bakoitzeko naturaltasuna eta aldi berean, lan lasai eta zaindua. Hitzik gabe, imajina poetiko ikusgarria izaten zen koadrokoa, non atseginarean zentzua errealtatearen zentzuaren gainean lebitatzen ikusten baitzen.

Magritte Donostian, eta Villabonan. Paisaian eta jendearen artean. Ikusten zen Bixente hiriko kaleetatik ibiltzen zela gau zatiak biltzen. Baserrien arteko bideetatik egurasten zela, tresna desagertuak biltzen zituela soro eta troken ertzean. Ematen zuen kostaldeko bidetik autoan joan eta ostadarrari begira geratzen diren horietakoa zela, ostadarra alboan edo atzean agerturik ere autoa martxan begira geratzen direnetakoa.

Ez dut data zehatzik gogoan eta, gainera, data zehatzekin markatzeko modukoa den ere ez dakit, apur bat itxuragabekoa ere bazelako denbora hura. 1975-1980 aldian zaila izan zen jendearentzat eta paisaiarentzat ere. Takateko asko ematen zizkiguten orduan. Bazirudien dena ari zela laster aldatzen eta bazirudien gau harrizko luzea astiro eta gutxi argituko zela. Egunak luzeak zirela ematen zuen eta aldrebesak, eta gauak are arraroagoak. Dena harea ari zela egiten, Bernardok idatzi zuen bezala, Etiopian. Ziurtasun gutxi eta ilusio asko, eta ziurtasun gutxi.

Barrikadak ere izaten ziren kaleetan tra-




bes. Politika nahinora heltzen zen, literatura, musikara eta pinturara. Bixenterenak ez ziren azalak ere oroitzen ditut, errealtate gupidagabeak pintatutakoak, Amparoren biluztasun ubelduarena, esate baterako. Iku-rrina debekaturik zegoen, artean, hagatik ziren hainbeste erabiltzen kolore berde, gorria eta zuria disimuluan bezala. Buzo urdinarekin sartzen ziren langileak fabrikara oraindik, XIX. mendean bezala. Eta mundu guztiak nahi zuen zerbait egin Lemoizko zentral nuklearraren aurka, listua bota behintzat. Gazte gehienak, gero sekula atera ezin izateko moduan hanka sartzeko prest geunden, edozertan, maiteminean, politikan edo beste edozein adikziotan. Edozer gauza zen anti-erlijiosoa, anti-kapitalista, anti-patriotikoa, eta iraultzailea. Interesgarriak ziren gauza gehienak arriskutsuak ziren, zeren Guardia Zibilararen kuartelean amai zitezkeen.

Eta horrela, astebete pasatu eta denboraren laburpen lez heltzen zen Bixenteren azala. Asterik aste, ustekabekoa, harrigarria, ederra izaten zen Bixenteren portada. Eszena lasaiak, lasaitasun horretan zerbait gertatzeaz zegoelako airearekin. Esplikazio errazetatik, museoetatik bezala, zeharo apartatzen ziren koadroak. Ikonografia sumagarria, errealtatearekiko mesfidantza eragiten zuelako.

Behin, pertsonalki ezagutu nuen, aldizkariaren gordeleku kaputxinoan. Ez zen handinahia. Apala, berba egin baino gehiago entzuten zuen. Bai pinturan eta bai bestetan ere bila ari zela ikusten zen. Umorea ere bazuen, umiltasunez egiten zuen barre, lehengo bere buruaz egin behar balu bezala aske eta adiskidetasunez egiteko. Harekin egon eta, umiltasun harekin, inpresioa ematen zuen halako koadro haietako batetik irtendako pertsonaia zela. Figura bat, lekuz kanpo, askatasunaren bila, izateko derrigorren kontra, izateko aukeren bila.

Aitak, lagun liburu-joslea zuela eta, etxean barreiaturik zebiltzan ARGIAK josiko zituela esan zidan, nire artikulua gordetzeko. Nire artikulua ez zitzaizkidan ardura, baina





baietz esan nion, ARGIA haietan sasoiaren azalpen moduko zerbait egon zitekeela pentsatuz. Egun batzuetan heldu ziren aldizkariak bi edo hiru liburu jositan. Baina ARGIA horien azalak falta ziren. Jostunak, kolorez eta paper distiraz azalak desberdinak irudituko zitzaizkion, eta zuri beltzeko orriak baizik ez zituen josi. Gogoratzen dut aita, nire protesta aguantatzen, koloretako azalak non zeuden, azalak ezinbestekoak zirela, portadak zirela inportanteena, liburu-joste taile-rran edo zabortegiren batean galduko zirenak. Aita lagunaren etxera joan zen biharamunean eta pozik ekarri zituen azal guztiak solte eskuan.

Inportantea zen azal haiek errekupe-rtzea. Zeren portadetako une soseguan den-

bora –denbora pasatua, denbora presentea eta denbora futura– laburbiltzen zen, esandakoarekin eta isildutakoarekin, gertatutakoarekin eta gertatu ez zenarekin. Eta hara hemen berriro portadak, denbora zeharkatuz heldu direla, zabal daitezkeen atak balira bezala. Imajina poetiko ikusgarriak, irudi bihurturiko benetako gauzak eta egiazko bilakatzeko gogoarekin dirauten fantasiak. Liburua ondo josita, jostunak testuak ahaztu dituela oraingoan, ea ikusten eta sentitzen den denbora –orainaren iragana, iraganaren oraina eta iraganaren etorkizuna— Bixenteren azaletan. ■

**Joseba Sarrionandia**



# AMASA VILLABONATARRON KOMUNI KAZIO TRESNA

[www.villabona.net](http://www.villabona.net)

egin klik!




**VICENTE  
AMEZTOY**  
gogoan

AMASA-VILLABONA  Villabonako udala

Helduen literatura

*Dirua galgarri*  
Mariano Izeta  
Auspoa, 1962



## Lehen thriller nafarra-edo

ZALAPARTATXOA eragin du ezjakintasunik: atera berri duten gaztelaniazko eleberri bat omen da lehen thriller nafarra. Noski, beste ezer baino lehen, sinetsi behar dugu izen hori merezi duen ezer egon daitekeenik. Gero, irribarrea marraztuko zaio Nafarroan egin den literatura gutxi-asko ezagutzen duenari. Iban Zaldúa eta Juan Kruz Lakasta aurreratu zaizkit: Miguel Sanchez-Ostiz eta enparauak ahaztu gabe, euskarazko hainbat etsenplu ekarri dizkigute. Alberto Ladron Arana aipatzen zuen Zalduak, eta Aingeru Epaltza eta Jon Alonso nabarmentzen. Atzerago jotzen zuen Lakastak, Oskillaso ekarriz, eta ustez guztietan aitzindaria, Mariano Izeta. Ez diot nik, ez Lakastak soilik. Aingeru Irigaray euskaltzainak gaztigatzen digu 62ko *Dirua galgarri* thriller nafarraren peredikuan: “*Euskaraz leenbiziko liburua ote da hau Baztanen? Polizia-nobela bezela bai, leena da*”. Eta esaten duenak Baztanen, esaten du Nafarroa osoan –beti ere, bihar agertzen ez bada eskuizkribu bat, nik dakita, Zaraitzuko ibaxan-.

Baten batek objekzioren bat jar dezake, hala ere. Esaterako eleberriaren haria Parisen gertatzen dela. Baina, zer, donostiar batek Nafarroan kokatzen badu thrillerra da nafarra, eta nafar batek Parisen kokatzen badu ez da? Gainera, ze demonio, “*oraindik biotzean zituzten Euskalerriko oiturak eta mintzaira*” liburukoek. Zalantzarik ez da thriller batek

bete beharrekoak biltzen dituela: lapurrak, luze gabe, Subemandile, Mirue eta Zapelatza, Pizti eta Beltza –eta hemen neroni urduritu naiz, beltzak ez orain atletismoan, aspalditik kendu baitigute lekua euskal nobeletan ere-. Poliziak, behar bezalakoak, atxilotuari esateko kapaz direnak: “*Zuk ainbertze maite baduzu zure sorlekua, zergatik etzara beingoan Kongora goaten? Emen ez tugu beltz bearrik*”. Eta, bistan da, heriotzak, kurioski, kasu honetan, erabat argitzen ez direnak. Baina ez pentsa literatura handiaz ari garenik –thriller bat literatura handia izan daitekeela uste badaiteke–: oso da lañoa eleberri osoa, dena ateratzen da ongi lehenengoan, zuzen doa aurrera gertaeren marra, presaka kasik beti batetik bestera.

Mariano Izetaren *Dirua galgarri* honekin abiatzen den ibilbideak, momentuz, Jon Alonsoren *Zintzoen saldoan* hartan dauka azken geltokia –eta azken horrekin plazer puskaz handiagoa hartuko du irakurleak, bai ki-. Eta ez zaizkit etiketak bereziki axola. Nahi baduzue prest nago “*Mosen Bernat Etxepareren kantua*” bera lehen thriller nafar gisa onartzeko. Baina zeinen ondo datozen batzuetan besteren ezjakintasunik geure buruei erreparatso bat emateko. ■

Aritz Galarraga



### 1. finalaurrekoa

otsailak 16, larunbata, 18:00etan, Izarrako Kultur Etxean



Asier Otamendi Irati Anda Serapio Lopez Orlando Arretunandia Rikardo G Durana Juan Mari Juaristi  
Gai-jartzailea: Unai Gomez



www.arababertsozale.org





*Fuimos, somos y seremos*  
Vendetta  
Baga-Biga, 2012



## Alaitasuna eta aldarria

VENDETTA TALDEAK oihartzun handia lortu du urte gutxitan. Ez da harritzekoa. Azken diskoa entzuz gero, taldea erabat sendotuta dagoela nabari da, eta kantu onak sortzen dituela.

Vendettakoek oso argi daukate zer egin nahi duten eta nola egin nahi duten. Bizitasun eta grina handiz aritzen dira, eta bihotzez jotzen dutela nabarmena da. Hala, urratsez urrats, taldea beti aurrera doa, etengabe, energia eta freskotasuna galdu gabe, eta erritmoak, melodiak eta mezuak ongi landuta.

Jaiak eta aldarriak bat egiten dute Vendettaren kantuetan. Oso modu atseginetan transmititzen dute hori guztia, eta haien erritmoek, melodiak, mezuak eta alaitasunak erraz harrapatzen gaituzte. Musikari handiak dira, eta gainera, aipagarria da taldekideek erakusten duten umorea, txantxa egiteko gogoia, erortria, gatza eta piperra.

Ska estiloa oinarritzat hartuta, rockaren, reggaearen eta Karibeko beste hainbat doinuren ukituak sumatzen ahal dira haien kantuetan. Hitzetan, besteak beste, mundu eta bizimodu zikin honetan ikus daitezkeen kaleko istorio gazi-gozo batzuk kontatzen dituzte. Kritika, salaketa eta aldarria egiten dute, modu zuzenean, umorez edo ironiaz, baina “ikuspuntu positibo batetik”, haiek esaten duten bezala. Hau da, irribarrea aurpegitik kendu gabe, eta dantza egitera animatuz.

Luisillo Kalandraka (baxua, kontrabaxua eta ahotsa), Javier Etxeberria (gitarra eta ahotsa), Ruben Anton (tronpeta eta ahotsa) eta Enrikko Rubiños (bateria eta perkusioa) Skalariak taldean aritzen ziren, eta 2009. urtearen hasieran, Pello Reparazekin (tronboia eta ahotsa), Vendetta taldea osatu zuten.

Urteotan, taldeak oihartzun handia lortu du. Hiru disko kaleratu ditu eta ehunka jendaurreko emanaldi egin ditu, han eta hemen. Euskal Herrian ez ezik, Europan barrena hainbat bira egin dituzte —Suitzan, Alemanian eta Ingalaterran jo dute, besteak beste— eta Saharako errefuxiatuen kanpamentuetan ere jo izan dute.

Grabatu zituzten lehenengo kantuak *Aurtengo gorakada 10* bildumara eta beste bilduma batzuetara bildu zituzten, *Vendetta* (2009) lehenengo dis-

koa kaleratu aurretik. Ska estiloa ardatz nagusia izanik, rockaren eta Karibeko beste hainbat doinuren aireak sumatzen ahal dira disko horretako kantuetan.

*Puro Infierno* (2011) izan zen hurrengo diskoa eta urrats bat aurrera egin zuten. Ska estiloak oinarria izaten jarraitzen du, baina beste erritmo batzuk ere jorratzen dituzte. Disko horren bitartez taldea sendotu egin zen, eta *Begietara Begira* eta *Buonaserá* kantuak, esaterako, aski ezagun bihurtu dira jadanik. Taldearen emanaldietara jende ugari joaten hasi zen orduetik, gazteak eta ez hain gazteak.

Azkenik iragan urte amaieran plazaratu duten *Fuimos, somos y seremos* diskoarekin, taldeak beste urrats bat eman du aurrera. Skaren enborretik abiatuta, rockaren, reggaearen eta beste zenbait musika estiloren adar batzuk jorratu dituzte. Ziur naiz taldearen zale kopurua areagotu egingo dela disko honen bitartez. Disko osoa baita, gorabeherarik gabekoa, eta intentsitate aldetik goian dago hasieratik amaierara arte. Diskoaren lehenengo kantua entzuten hasi, eta konturatu orduko diskoa amaitu egin da, disko osoa erraz entzuten baita. Kantu politikak dira, oso gustura entzuten ditugunak.


Iker Piedrafita ekoizlearen lana azpimarratzeko modukoa da, ekoizpena itzela baita. Ahotsak eta gainerako musika tresnak ondo landuak daude, baita kantuen moldaketak ere, eta soinua trinkoa eta indartsua da. Taldekideekin batera, hainbat kolaboratzaile aritu dira grabazio saioetan: Selva Baron (ahotsa), Dani Velasco (biolina), Maria Fernandez (biola), Elorri Arkotxa (txeloa) eta Iker Piedrafita bera (teklatura eta ahotsa). Denen artean lan borobila osatu dute, disko eder bat.

Atsegin handiz entzuten ditugu Vendettaren diskoak, eta pozik joaten gara haien emanaldietara. Jakin badakigulako ederki pasatuko dugula, eta irribarrea aurpegitik kendu gabe dantza batean egongo garela. Vendettaren kantuek bizipoza eta bizitzeko indarra transmititzen baitigute. ■

Joxi Ubeda



Hitz gezidunak

AHANTZI ZIKIN, LIZUN	ITURBURU SORTU ZINTUENA	AHALEGIN, LEHIA			...EGIN, OSPA EGIN ZAUNKA, ADAUSI	ANTZINAKO URREZKO MONETA PERTSONAIA- REN IZENA	PINPIRIN, GALAI SODOMAKOIA
ARRANTZA- TRESNA NEURRI			ZALANTZA PARTIKULA USOAREN OKELA	ISLA ELEMENTU KIMIKOA	ZEKEN ... GAZTAINA, ITSAS GAZTAINA		
TONA ALTU	PERTSONAIA- REN ABIZENA ZURE ALDEKO		ZENTZUDUN UDAL BATEKO BURU		MOTORRIK GABEKO IBILGAILU URDAI		MONGOLIARI DAGOKION DOMEINUA BAZKATU
MATAZAK HARILTZEKO TRESNA	BIZKAIKO UDALERRIA BORROKA, LISKARRA			DISTIRA, DIRDIRA UZTAIA		TRIANGELU FORMAKO HEGALA ALTZAJURZKO LANABESA	ERREGELA, NORMA
UNIBERTSI- TATE-ESKOLA MOLUSKU PREZIATUA		JOLASA, JOSTETA RONA				ZIZARE UNATU ADITZAREN ERROA	
SUBSTANTZIA ELASTIKOA KONFITURA			EUSKAL JAKA TIPIKOA 40		MINGARRI, OINAZETSU 500		ANPEREA SAMARIOA
						ANTXUMEA (BIZKAIAIN)	

Kike Amonarrizen umorea



Ez itzultzeko modukoa

Lan kontuak zirela medio, gure lagun batek Madrila joan behar izan zuen den abenduan. Eguneko eginbeharrak amaitu ondoren, Plaza Mayor inguruko jatetxe batera sartu zen afaltzera. Entsalada hasteko eta legatza bigarren platera. Baina arraina jaten hasi eta



hura ez omen zegoen ahora sartzerik! Kiratsa! Zerbitzaria inguratu zitzaionean hala esan omen zion:

– Hau baino arrain freskoagoak jan izan ditut!

Eta zerbitzariak erantzun:

– Ez hemen!

Soluzioa

L	I	S	I								
D	U	K	O	R							
I	A	L	A	D	A						
I	H	E	L	A	T	O	I				
			O	I	N	D	E	I			
				T	E	N	D	E	I		
A	I	S									
A	A	M	A								
I	Z	A	R	I							
L	U	Z	E								
H	A	R	E								
O	S	T	R	A							
M	A	R	M	E	L	A					





## Aitzina

*POSTHUMOS*, Idoia Zabaleta dantzari gasteiztarraren azken lana, urtarilaren 18an estreinatu zen Bilboko La Fundicion aretoan.

Hitzordua jarria genuen Idoiak eta biok haren lanaz hitz egiteko, baina jendaurreko topaketa ere egin behar zuen. Alegia, antzezenaren aurretik edo ondoren, publikoarekin elkartu eta sormenari buruzko azalpenak eman. Ideiak sendotzeko balio du, eta jakin-mina zabaltzeko. “Egin dezagun elkarrizketa publikoaren aurrean”, proposatu zidan Idoiak. Antzezenean esku hartzen duten taldekideez gainera, beste hamar bat lagun bildu zitzaizkigun.

Dantza emanaldi honi jarri dion izenburua, *Posthumos*, hitz jokoa da. Alde batetik, sutearen ondorengo egoerara eramaten gaitu. Bestetik, ingelesezko esanahiari heltzen dio: posthumous hildako aita-amen seme-alabei deitzen zaie, bizirik geratzen direnei.

Bi aurre-estreinaldi moduko eza-gutu zituen obrak, Bilboko La Fundicion aretora heldu aurretik, Gasteizeko La Monstrenka aretoan bata, eta Valentzian bestea.

“B saileko musika antzezen bezala” definitzen izan du Idoia Zabaletak bere obra. Berak ez du

**Izenburua:** *Posthumos*. **Idea eta zuzendaritza:** Idoia Zabaleta. **Antzezleak:** Garazi Lopez de Armentia, Ana Gandia eta Kris Oraá. **Argiak:** David Alkorta. **Ekoizpena:** Azala, kreaizio espazioa.

honetan dantzarik egiten. Zuzendaria da, eta sortzailea, aspalditik buruan zerabilkien ideiarena: “belau-naldien arteko zuloan murgildu nahi nuen eta hiru emakume gazte hartu nituen, egun 20 urte besterik ez dituztenak. 80ko hamarkadan adin hori zuen jendearen keinuak, leloak eta jarrerak gazteen artean inposatzea bilatu dut, eta hau guztia Euskal Herriko testuinguruan”.

Nerabeekin jardun nahi zuen lanean. Gainera, dantzariak emakumezkoak izatea nahi zuen, emakume gasteiztarrak eta 1986 urteaz geroztik jaiotakoak, Eskorbuto taldearen *Anti-Todo* diskoaren ostekoak. Oinarrizko azken baldintza ere garbi zuen: aurretik dantzarekin edo dantza-aren sormenarekin zerikusirik ez izatea.

Obra honetan ez du kolaboraziorik izan Idoia Zabaletak. Partitura idatziari jarraitu diote une oro.

“Oso gustuko dut elkarlana, beti izan naiz zalea, baina nazkatuta nago nire irudimena negoziatzeaz”.

Zenbait galdera sortu zitzaizkion sormen prozesuan. Esate baterako, 90eko hamarkadako eta mendeko lehen hamarkadako sofistiazio mailak nora eramán ote gaituen.

“Ez diot nostalgiaz begiratzen iraganari, ez naiz horren aldekoa, baina garai hartako konpromisoa, pultsazio soziala edota gauzak esateko zuzentasuna erabatekoak ziren. Aldiz, dena konplexua da gaur egun, bereziki artearen munduan, eta sofistiazio mailak ez gaitu inora eramango. Antzezena *Anti-Todo*-ren ildokoa da apur bat, guztiaren aurkakoa, artearen aurkakoa, dena utikan bidaltzekoa. Haus-tura eta berregitea. Eस्पlizittoa”.


Dena dela, aurreko lanen segida ere bada *Posthumos*. 2007an hasitako antzezenaren 3. edota 4. atala dela dio sortzaileak, *Fisura* deiturikoarena, orain arte egindako lanaren ifrentzua, “B alde”. Oraindik data zehatzik ez badago ere, aurki dantza emanaldi hau gure geografiko aretoetan programatuko dutela espero da. ■

**Myriam Garzia**



# Papa Mau, olatuen indarraz higitzen den robota

LIQUID ROBOTICS



URTEBETE BAINO GEHIAGOZ olatuen indarra erabilia nabigatu du Liquid Robotics enpresak sortutako robot-sistemak. Papa Mau deitu diote asmakizunari, eta 16.668 kilometro egin ditu Kaliforniaren eta Australiaren artean.

Planeatzaile akuatiko hau sei metroko kable batez loturiko bi atalek osatzen dute. Batetik, ur gainean kokaturik dagoen flotagailua eta, bertan, eguzki energia baliatzeko zelula fotovoltaikoak ditu. Bestetik, sei metro beherago, itsaspeko txiki bat dago. Barnean hainbat tresneria ditu neurketak egin ahal izateko, eta kanpoaldean olatuen indarra baliatzea ahalbidetzen duen hegal higigarri multzo bat. Olatuan daudela detektatzean, hegalean posizioa aldatzen da, eta itsaspekoa aritzen da trakzio-egile.

Sistema erabat autonomoa da, energia beharrak eguzkiaren bidez asetzen baititu. Iraupen luzeko misioetarako da aproposa, batez ere. ■



# Bakterioen bidez urrea sortu

HAINBAT METAL, burdina adibidez, oso onak izaten dira bakterio batzuen hazkunderako, baina beste batzuek, urreak edo zilarrak esaterako, aurkako efektua dute, hau da, bakterizida direla esan daiteke.

Berriki jakin denez, zientzialarientzat ezaguna zen *Cupriavidus metallidurans* bakterioak urre molekularra sortzen du bere zelulen artean, urre-ioitik babestu ahal izateko. McMaster Unibertsitateko (Ontario, Kanada) ikerlariak *Nature Chemical Biology* aldizkarian argitaratu emandako artikulua araberara, berriki, *Delftia acidovorans* deituriko bakterioak bere inguruan sortzen du urre molekularra urre-ioitik abiatuta eta soluzio neutro batean. Aurkikuntzak garrantzi handia du nanopartikulen industrian; izan ere, prozesua segundo batzuetakoa baino ez da. Segundo horietan urrezko xafla bat izan dezakezu, hainbat prozesu industrialetan erabiltzeko modukoa. ■



MICHIGANEN UNIBERTSITATEA



## Hirietako beroaren eragina urrunera heltzen da

Hirietan sortzen dugun beroak, inguruko ekosistemetan ez ezik, askoz ere eremu zabalagoetan izaten du eragina. Bistan da Paris edo Madril bezalako hiri bateko auzoetan temperatura ohikoa baino lauzpabost gradu altuagoa izaten dela; horrez gain, hiriko beroak klimari eragin diezaioke milaka kilometro-ara ere.

ttiki.com/47093  
(Frantsesez)

## Gezurretan aritu nabaritu gabe

Azken aldi honetan hizpide ditugu ustelkeria kasuak. Telebistan politikari bat baino gehiago atera da, atzo gauza bat esanez eta gaur bestea. AEBetako unibertsitate bateko ikerlariak gezurra esateko artea aztertu dute.

ttiki.com/47094  
(Gaztelaniaz)

## Orain arte ezezagunak ziren leizeetako hainbat landare aurkitu dituzte

Txinan, Myanmarren eta Vietnamen karezko munduko mendirik zaharrenak daude. Hango milaka leize eta haitzartean berriki hasi dira ikerketak egiten, eta horien ondorioz habitat horietan baino bizi ezin daitezkeen landare espezieak aurkitzen ari dira.

ttiki.com/47095  
(Gaztelaniaz)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16



## Malakologia

MALAKOLOGO EGINAK DAUDE nekazariak Euskal Herria hezean. Soinberei edo moluskuei nondik nora gaina hartu ikertzen eta saiatzeko belaunez belaun sortutako jakintza da malakologia. Barraskiloak eta bareak dira nekazarien molusku ezagunenak. A zer pare! Barraskiloa eta barea. Hezetasuna gustuko eta gauzez lan egiten duen pare. Hotzak eta lehortek izorratzen dituztenez horien sasoieta babesa topatu behar dute. Hibernazioan eta estibazioan iaioak dira. Lurpean edo aterpean sartuko dira. Teiltuetepeko pare.

Barraskiloen eta bareen kalte ikusgarrienak landare txikietakoak dira, jo eta erabat jan ditzakete. Kalte horiek baretzeko, pozoi kimikoaz gain bide ugari bada. Teila da onena. Landare artean teilak jarri, bizkarrez gora, itzala eskainiz. Beraiek bilduko dira bertara. Handik zeuk bildu. Teiltape hori erakargarriago egiteko gustuko duten gutiziaren bat jar dakieke: laranja-azala, limoi-azala, patata-azala... Gutizia horien pareko da parearentzat garagardoa. Ontzi bat garagar-doza ia beteta lurpean sartu eta ahoa lurrizalaren parean, barraskilo eta bare garagardotara plasta, eta bertan ito. Garagardoa euritan urtu ez dadin, eta ontzia aho ertzeraino bete ez dadin, hori ere teilaz estaliko dugu. Tartean animalistaren bat baldin badugu, eta molusku horiek hiltzeari gaizki baderitzo, garagar-doza ontzi batean jarri beharrean, garagar-doza blaitutako trapu bat



WOODLOUSE-CC BY SA

jarri. Berdin etorriko dira, baina hartu eta auzokoaren landareetara bota... Animalistek gustuko ez dituzten etxeko oilo, ahate, antzar eta abar molusku chiztari eta jale amorratuak ere badira. Txoko heze eta ospeletan moluskuaren arrautzak ere bilatu, aurkitu eta jango dituzte. Guk egin dezakegu arrautza bilketa hori, baina bi hankako horiek gure aldean erraz egingo dute. Bi hankako molusku-jale horien arrautzak bai guk bildu ditzakegu eta jan ahala azalak jaso. Azal horiek txikitu eta landare aldatu berrien artean zabaldu. Azal puska zorrotzen gainean ibiltzea ez dute gustuko eta moluskuak urrutiratu egingo dira. Horren

lan bera egiten du errautsak, gainean ibili ezinik atzera egingo dute. Bustita trinkotu egiten denez, euria denero errauts geruzaz berritu. Gatza ere atsegin omen dute, baina gehiegian urgabetu eta hilko ditu. Lurra gazitzea ere ez da ona, eta zenbaitek ogi mamiz egindako pilotatxoak gazitzen dituzte. Baratxuriaren estraktua edo ura ere ona da, izan ere nor ez du baratxuri kiratsak uxatzen? Eta besterik ez bada, ilunabarrean hartu eskuargia edo kriseilua eta hasi bila. Bildu eta jateko jaso. Bildu eta auzokoaren baratxera bidali. Bildu eta zuzenean akabatu. ■




Babeslea: ALKARTASUNA, Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba

ROZELTE®



**ALKARTASUNA**  
Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba

**Erosi gure produktuak online**



T 943 361 114 · [alkartasuna@usurbil.com](mailto:alkartasuna@usurbil.com) · [www.alkartasunausurbil.com](http://www.alkartasunausurbil.com)

# Itsas tragedia erromantizismoaren ikono

ROCHEFORT (FRANTZIA), 1816KO EKAINA. Argus, Écho eta Méduse ontziek osatutako konboia portutik abiatu zen Senegalerantz. Méduse fragataren buru Hugues Duroy de Chaumereys bizkondea aukeratu zuten, irizpide garbirik gabe, hogeitau urte nabigatu gabe eman ondoren.

Espedizioaren helburua Senegal britainiarren eskuetatik berreskuratzea zen. Britainiarrek hala zuten onartua Parisko Itunean, eta ez zen gorabeherarik espero bidaian. Eguraldi ona lagun, Chaumereysek beste ontzien aurretik joatea erabaki zuen. Baina kapitainaren trebetasun herdoildua medio Médusek joaira galdu zuen, eta uztailearen 2an hondarpe bat jo zuen egungo Mauritaniako kostaldetik gertu.

Hiru egunez hondartutako ontzia askatzen saiatu ondoren, salba-txalupetan kostaldera iristen saiatzea erabaki zuten. Baina eskifaia 400 lagunek osatzen zuten eta txalupetan 250entzako tokia besterik ez zegoen; beste 150ek, presaka, almadia modukoa prestatu behar izan zuten.

Salba-txalupek baltsa atoian eraman behar zuten,



*Méduseren baltsa (1818-19), Jean Louis Théodore Géricault. Frantziar erromantizismoaren koadro ezagunenetakoa bi urte lehenagoko benetako gertakizuna du oinarri.*

baina bide laburra egin ondoren, erdi hondoratuta zegoen almadia txalupetara lotzen zuten amarrak askatu egin ziren (edo norbaitek askatzeko agindua eman zuen). Baltsan galleta pakete bat, bi bidoi ur, bi ardo upel eta ehundik gora gizon geratu ziren.

Jakiek egun bat besterik ez zuten iraun, baltsa gobernaezina zen, hondoratzeke arriskua oso handia zen, eta tentsioak eztanda egin zuen. Liskarretan hainbat gizon sastakatu zituzten, beste

batzuk kareletik bota, eta tirabira horietan ardo upelak itsasoan galdu ziren. Bizirauteko aukera gutxi zutela ikusita bere buruaz beste egin zuenik ere izan zen. Beste elikagairik ezean, bizirik geratzen ziren geroz eta marinel urriagoak hildakoen haragia jaten eta haien odola edaten hasi ziren, laguntza iritsi arte eusteko itzaropenez.

Méduse hondartuta geratu eta hamahiru egunera, espedizio bereko Argus ontzia almadiaraino iritsi zen. Jitoan geratutako 150 lagunetatik hamabost geratzen ziren soilik. Oztaozta iritsi zitzairen erreskatea, baina bizirik ateratzea lortu zuten. ■



## Arrastoak

### Parisko emakumeek prakak jantzi ditzakete, orain



1800EKO AZAROAREN 7AN Parisko udalak “emakumeen trabestismoari buruzko ordenantza” onartu zuen. Arauaren arabera, emakumeek prakak jantzea trabestismoa zen, eta “gizonezkoek bezala jantzi nahi duen emakume orok” polizia prefekturan baimena eskatu behar zuen.

1892an eta 1909an debekua arin-

du zuten, eta bizikletan nahiz zaldiz zebiltzan emakumei baimen berezirik gabe ere galtzak jantzeko aukera eman zitzaien. Iragan urtarrilaren 31n hartu zen ordenantza bertan behera uzteko erabakia. Beraz, praktikan legea aplikatu ez den arren, debeku zentzugabea bi mende luzez egon da indarrean. ■



ARRITXU SANTAMARIA / NEKANE GARMENDIA

# «Guk ez dugu ikusten garai berri batean gaudenik»

Eusko Ekintza alderdi berriko kideak dira Arritxu Santamaria (Zumaia, 1956) eta Nekane Garmendia (Ordizia, 1953). Lehena, 2003-2006ko bake prozesuko Konponbiderako Mahaiaren koordinatzailea izan zen. Bigarrena EH Bilduko zinegotzia da Ultzaman. Ezker abertzalearen herri mugimenduarekin identifikatzen dira biak ala biak.

| MIKEL ASURMENDI |

Argazkiak: Dani Blanco

EUSKO EKINTZAKO Arritxu Santamaria eta Nekane Garmendiaren iritziz, politika ekonomialarien esku dago, ez pentsalarien eta ekintzaileen esku. Espainiako Estatuko krisi politiko-ekonomikoa erabatekoa da, eta gainera, bipartidismoa lur jota dago. 1977ko trantsizioa egia, justizia eta erreparazioan oinarrituta egin izan balitz, Espainiako Estatuaren demokrazia sistema ez legoke frankismoaren baloreetan errotuta egongo gaur egun, beren aburuz.

Trantsizio politikoa gauzatu beharra aldarrikatzen dute, eta horretarako baldintza subjektiboak sortu eta politika ekintza sozial gisara garatu beharra azpimarratu dute.

Ezker abertzaleko sentsibiltate ezberdinetako bilgune gisa aurkeztu dute Eusko Ekintza. EAE-ANVre-kiko kidetasunaz galdeturik, hona erantzuna: “ANV legez kanpo dago. Eusko Ekintzan ANVko eta EAko jendea dago, baita libertarioak, komunistak eta Ezker Soberanistakoak ere”.

Nondik nora alderdi berri hau? Zergatik sortu duzue Eusko Ekintza?

**Nekane Garmendia:** Ezker abertzalea krisian murgilduta zegoela hasi ginen biltzen, duela bizpahiru urte. Planteamendu berriak formulatu genituen etorkizunari begira. Hainbat ildoko eta ideologiako jendea gara, iraganean lan militantea





**Arritxu Santamaria:** "Guk ez dugu ikusten ezker abertzalea alderdi bakarrean bilduta, hegemonismotik kanpo gaude. Egoeraren diagnostikoan baditugu diferentziak".

egindakoa, denok ezagutzen dugu elkar. Horiak horrela, gaurko egoera politikoaren diagnostikoa egin genuen.

**Arritxu Santamaria:** Diagnostiko horren arabera, bai sozialdemokraziak bai liberalismoak ez dute inongo ekarpenik egiten guk nahi dugun gizarte berria sustatzeko. Sozialdemokrazia ustelkeriak itota dago, baita neoliberalismoa ere. Egungo egoera politikoa, ekonomikoa eta soziala, gaindituko duen sistema eraiki behar dugu, eta horretarako ez dute balio aipatutako eredu sozialek. Une berean, Euskal Herria presio izugarriean dago. Ilegalizazioek ezker abertzale osoa hankaz gora utzi dute. Beraz, ezkerreko sektore anitzen artean bestelako indar korrelazioa proposatzen dugu egoera beltza hau gainditzeko.

**Garmendia:** Eusko Ekintzaren abiapuntuan elkartu nahia dago, baina hasi besterik ez gara egin. Ezkerreko herritarren batasuna da gure lehen jomuga.

**Funtsean alderdi politikoa zarete. Nolako egitura izango du Eusko Ekintzak?**

**Santamaria:** Alderdi bat sortu dugu, baina bokazio batekin: herritarrak

behetik gora antolatzen planteamenduarekin, demokrazia errealean edo erradikalean oinarritua, hitz batean: parte-hartzailea. Demokrazia ahul ikusten dugu, beraz, alderdia eratzeko modua ere aldatu nahi dugu. Ez dugu pertsonaia eledun dirdiratsuaren figura nahi, horregatik gaude bi kide hemen. Gure asmoa lan kolektiboa gauzatzea da herri ekimenak sustatuz.

**Nola, baina?**

**Garmendia:** Hasteko, gure antolaketan eskualdeak eredu nagusi gisa hartzea da funtsezkoa. Horrela hasi dugu egituraketa, eskualde naturaletatik. Gipuzkoako Goierri edo Urolan aurreratuta gaude. Alderdian hiru figura daude: ekintzaileak, kideak eta zaleak. Gero bakoitzak ikusiko du bere burua nola konprometitzen duen. Diasporan proiektuarekin jendea interesatua egon daitekeela ikusi dugu. Bi hilabeteetan, eskualdeko biltzarren bidez, nazio mailako talde koordinatzailea eratu dugu. Araba eta Bizkaian ere ari gara jada. Iparraldean, oraingoz Lapurdin abiatu dugu jarduna.

**Arestian krisia aipatu duzue. Horien artean ezker abertzalaren krisia.**

**Santamaria:** Sistema politikoa krisian dago eta abertzaletasuna ere bai. Errepresioak eragin handia izan du ezker abertzalean, eztabaida politikoa nahiko alboratua geratu da, nora eza izugarria ekarri du, antolatzen modurik gabe utzi gaitu une batez. Hutsune handia da eta betebeharra dago. Utopia politikoa berrezarri behar dira, ezkerreko norabide berriak markatuko baditu.

**Zergatik ez zaudete Sortu alderdian?**

**Santamaria:** Lehenik eta behin, gure eskubidea delako alderdi politiko bat sortzea.

**Garmendia:** Bestetik, ezker abertzalea herritar batasunean antolatua egon delako historikoki, ez alderdi bakarrean. Ezker abertzalean denok ez gara eremu berean ari, batez ere antolatzen moduan ezberdintasunak ditugu. Ezker abertzalea ezin da egituratu alderdi bakarrean. HB edo EH izan ziren, beti egon dira alderdiak eta herri

mugimendua horiekin batera. Sortu ez da herritar batasuna, alderdia da.

**Eta Eusko Ekintza ere bai.**

**Garmendia:** Gure alderdia, uzten bagaituzte alderdi bezala funtzionatzen, ez da hegemonikoa izango. Independentek eta joera guztietakoak gaude. Desberdinak gara Sorturekiko.

**Santamaria:** Dena den, ezker abertzalea gure esparru naturala da, bertan hainbat proiektu izaki. Gu beste proiektuen osagarri izateko bokazioarekin jaito gara, baina hegemonismotik kanpo. Ez dugu ikusten ezker abertzalea alderdi bakarrean eratua. Egoeraren diagnostikoan diferentziak ditugu, guk ez dugu ikusten garai berri batean gaudenik. ETaren geldialdiak egoera berria ekarri du ezker abertzalean, baita sortuko diren ildo politikoen etorkizunean. Esparrua sustatu behar da indar metaketaren eta ezkerreko politika antikapitalistaren bidez.

**Ezker abertzaleko beste ildoak ez al dira xede horretan ari?**

**Santamaria:** Nik irakurri ditudan ponentzietan, antikapitalismoa aipatzen bada ere, modu erdi literarioan geratzen da. Antikapitalismoak ildo politiko osoa garatzea eskatzen du, eta hori ez dugu argi ikusten. Joera antikapitalista sustatu behar da, eta hori lortzeko desobedientzia zibila planteatzen dugu, adibidez.

**Arnaldo Otegi, "desobedientzia zibila gehitu behar diegu gure egungo borrokei" esan zigun ARGIAN, Logroñoeko espetxetik.**

**Santamaria:** Sortuko ponentzietan hautu hori dago, baina zehazpen gehiago behar du. Hainbat gauzatan bat egiten dugu noski, baina guretzat desobedientzia zibilak ez du jarrera estetikoak izan behar. Haien artean ere ez ziur aski, baina hori argi eta garbi adierazi beharra dago. Aldebakartasunak, adibidez, definituagoa izan behar du, indar harremanak finkatzeko balio behar du, eta enfrentamendurako prest egoteko. Espainiako Estatuko erregimen aldaketa ez da berez etorriko, gogor borrokatuz baizik.



**Non dago borrokaren klabea?**

**Santamaria:** Klabea herritar mugimenduaren antolaketan dago eta horretarako ezkerreko indarren harreman politikoa landu behar da. Ezker abertzalearen helburuak lortzeko egungo indar harremana irauli behar da, herri mugimenduan oinarrituta. Orain arte Bildu, Amaiur eta EH Bildu koalizio elektoralak baino ez dira izan. Beraz, herri mugimenduak politika instituzionalan ordezkatzuta izan behar du.

**Eusko Ekintza ez duzue EH Bildun ordezkatu ikusten?**

**Garmendia:** Eusko Ekintzan gauden batzuek EH Bilduren eraketan parte hartu genuen. Ibilbide horretan gorabehera handiak izan ziren, une gogorrak. Jende independentea EH Bildun nekez aritu ginen, hala ere, guk jarraitu genuen proiektuan, eta hauteskundeetara ere aurkeztu ginen. EH Bildun dauden batzuek ez zuten ere sorrera arte gauza handirik egin. EH Bildun ari garen partaide batzuk ez gara erosoegi ari. EH Bildu ez da guk espero genuena. Gure esperientziaren arabera hainbat korrante ez dira erraz onartzen. EH Bildu hauteskundeetarako ekimena da batez ere, ez daukate harantzago joateko asmorik, ez dago militantziarik, berau osatzen duten alderdien kideak dira. Ez dugu uste EH Bildu bozkatu duen jende gehienak koalizio soila nahi duenik. Hala ere, gu EH Bildun kokatzen gara, hori da gure esparru politikoa naturala.

**Zein unean dago herritar mugimendua? Nola sustatu behar da berau?**

**Santamaria:** Lehenbizi, hustuta dagoen herritar mugimendua bete behar da. Gure helburuetan ez dago instituzioetako tarta zatia geureganatzea. Zertarako tarta zatia, gero bihotzerrea emango badigu. Guk politika instituzionalaren kontrolatzailea izango den mugimendua sustatu nahi dugu, jarduera instituzionala bermatuko duena, instituzioetan egingo den politikari indarra emango diona. Bestela krisian segituko dugu: oraingo erregimenaren krisia, ustelkeriak itota, besteak beste, kontrola falta delako sortu

da. Ongizatearen gizartea bermatuko duen sozialismoa planteatzen dugu, esparru publikoan, kooperatibismoan eta komunitarismoan oinarritua. Euskal Herrian esperientzia positiboak daude norabide horretan: banku etikoak, lur publikoak eratzeko ekimenak. Euskoa moneta sortu da Iparraldean. Diruari beste zentzu bat ematen diona, kapitalismotik at.

**Aieteko adierazpenak urte luze bete du. Zer balorazioa egiten duzue normalizazio prozesu politikoaz?**

**Santamaria:** ETaren ondorena kudeatzeko garaia da. Historia berrian hiru trantsizio bizi izan ditugu, eta orain ere halaxe gaude. Espainiako trantsizio nagusiaz ari naiz, sistema politiko zeharo usteldu batez. Demokrazia erreala izateko benetako trantsizioa gauzatu behar dugu. Euskal Herriko erregimen demokratikoa gauzatzeko arkitectura legal eta juridiko-politiko behar da Espainian.

**Nola lortu hori baina?**

**Santamaria:** Trantsizio politikoa bultzatuko duen konfrontazioa bideratuz. Gure planteamendua da, bultza hemendik eta bultza handik eta sistema etorriko da behera, krisiaren bukaeran sistema demokratikoagoa izateko. Hori gertatzen denean emango da justizia trantsizionalaren aplikapena.

**Justizia trantsizionala aplikatuko da, amnistia eman gabe?**

**Santamaria:** Ez. Ez da aplikatuko erregimen aldaketa izan gabe. Aurreko sistemak ekarri dituen gehiegikeria guztiak berriz gerta ez daitezen, presoekiko eta biktimekiko, egia, justizia eta erreparazioa eman behar da. Eta gainera, berriz gertatuko ez denaren bermea izan behar dugu. Gutxi aipatzen dute hori, baina hori da egoera politikoa-ren aldaketa bermatuko duena. Oinarritzako arazo politikoei heltzen zaienean, errekonozitzen da borroka politiko eraman dutenek amnistia behar dutela; delituak politikoak baitira, jarduera politikoak sortu dituen delitu horiek, lege horiek, konstrukzio horiek, bertan behera geratu behar dira.



**Nekane Garmendia:** "EH Bildun ari garen partaide batzuk ez gara erosoegi ari. EH Bildu ez da guk espero genuena".

(...)

Amnistiak gure presoek eta borrokalariak planteamendu politiko zuzen baten alde borroka egin dutela adierazten du. Espainiako Estatuko Justizia trantsizionala zalantzan jarri behar da, zalantzan jarri ere ustelkeriak, eraiketak, torturak eta lege errepresiboak bermatu dituelako.

**Jaurlaritzako Bake eta Elkarbizitza Sailaren zuzendari Jonan Fernandezek, egia, justizia eta erreparazioa aplikatu behar direla dio, baina, amnistia moduko planteamenduek konponbidea lortzea zailtzen dutela.**

**Santamaria:** Baina hala eginez gero, sistemak bere horretan segituko du. Edo orain arteko arkitectura politikoa bermatzen da edo berau botatzen ahalegintzen gara. XX. mendean hiru amnistia aplikatu dira Espainian. 1977ko trantsizioa lardaskeria handia izan zen. Amnistia legea aplikatu denean erregimen aldaketa izan da. Egia, justizia eta erreparazioa gauzatzea da gakoa. Baina hori eman dadin jarrera tinkoak hartu behar dira ezkerretik. Amnistiak zentzua dauka, guk ez dugulako nahi lehengo erregimenak kudeatu duen politikak segitzea. Amnistia ez dela komenigarria, zeinentzat? Ezkerrekoentzat bai. ■



# Momentu egokiaren zain?

Frackinga egunerokotasunaren lehen lerrora itzuli da asteotan. Eusko Jaurlaritzak adierazi du, sailburu biren ahotik, momentuz baztertu egingo duela gas ez-konbentzionala ustiatzeko teknika hori. Bitartean, Gasteizko Legebiltzarrak ingurune babestuetan frackinga debekatzeko lege bat eztabaidatuko du, baina ez du onartu Fracking Ez Araba plataformak aurkeztutako herri ekimen legegilea, debekua EAEko lurralde osorako izateko helburua duena.

| UNAI BREA |

2011KO URTARRILEAN, artean Euskal Herrian frackinga zer zen inork gutxik zekiela, honako profezia egin zigun Pello Zubiriak: “Ikasi hitz berri hau: fracking. (...) Fracking entzun eta irakurriko dugu sarritan gaurgero”. Bai bete-betean asmatu ere.

EAEko azken hauteskunde kanpainan behin baino gehiagotan atera zen plazara frackinga, gai potoloagoen (krisia, burujabetza, bakegintza) itzalean bada ere. Orduko galdera nagusia oraingo bera da: oposizioan egon bitartean frackingarentzat moratoria eskatu duen EAJk, zer jarrera izango zuen behin Jaurlaritzara itzulita? Azken asteetan sailburu bik publikoki hitz egin dute gaiaz. Biek, Ana Oregik bezala Arantza Tapiak, Ingurumenaren eta Garapenaren arduradun nagusiek hurrenez hurren, hauteskundeen aurreko jarrerari eutsi diote: gaur-gaurkoz ez dago segurtatuta frackinga segurua denik, eta beraz baztertuta dago gasa ustiatzeko teknika modura.

“Gaur-gaurkoz”, “oraindik”, “momentuz” eta antzeko adberbioak etengabe azaldu zaizkigu sailburu bien diskurtsoan. Aurreko Jaurlaritzaren aurka behin edo behin bat egin duten arren, EAJk defendatzen duenaren eta frackingaren aurka azaldu diren gainerako elkarre, talde eta alderdiek diotenaren



BOB WARHOVER

Fracking putzua Pennsylvania (AEB).

artean alde handi bat dago: EAJk gasa ustiatu nahi du. Bete-betean frackingaren aurka daudenek ez bezala, EAJk uste du gasa ustiatzea klima aldaketaren kontrako borrokaekin bateragarria dela. Jeltzaleek erregai fosiliek gabeko etorkizun baterantzko trantsiziotzat dute gasa. Arazoa frackinga bera da: demostratua dago ez dela segurua, beraz itxaron dezagun teknika seguru bat garatu arte.

Oregi eta Tapia sailburuek ingurumenaren arloko legedia errespetatu beharra azpimarratu dute. Baina, noiz eta nork erabakiko du teknologia segurua dela, eta beraz legearekin bateragarria? Ez dezagun ahantzi gaur egun badagoela frackingak inongo arazorik sortzen ez duela dioenik. Bereziki, espero zitezkeen, gas ez-konbentzionala ustiatu nahi duten enpresak. Horien artean, eta hau bai azpimarratzekoa,



Eusko Jaurilaritzaren menpekoa den SHESA konpainia publikoa. SHESAko arduradunek iritziz aldatu beharko dute nagusi berrien aginduz, edo pixkanaka, ia oharkabean, EAJk aurkituko du “orain bai, orain frackinga egin daiteke beldur gabe” esateko momentu aproposa? Ikusiko da nondik askatzen den korapiloa, baina oso litekeena da horretarako ingurumen babesarena baino faktore gehiago ere izatea.

### Arazoa ezkutatzeko, arazoari izena aldatu

EAJ atakatik ateratzeko bide bat, akaso, Frantzian indarra hartzen ari dena da: fracking hitza itsusia denez, esan diezaiogun beste era batera. Louisianako Unibertsitateak egin berri duen ikerketa baten arabera, fracking izenaren orde besta bat erabiltzen denean, gauza bera adierazteko bada ere, herritarrek hartaz duten iritzia asko leuntzen da. Badirudi fracking berbak oso bizi dakarkigula gogora hausturaren ideia. Horregatik enpresa-jabeak hasi dira, haustura hidraulikoa debekatuta dagoen Frantziako Estatuan, hizkera amultsuagoa erabiltzen, ia erotismoaren eremuan sartzeraino. Haitzari masajea ematez hitz egiten da orain, edo haitza kitzikatzeaz, bere hidrokarburuak aska ditzan.

Ikusiko da norainoko arrakasta duen gudu terminologikoak. Frantziako elkarte ekologistek, bere momentuan, mesfidantzaz hartu zuten frackinga debekatzeko Parisek egin legea, haren benetako helburua ingurumena babestea ez baizik eta gizarte

## Frackinga debekatzea ez da gauza bera guztientzat

LEGEBILTZARREKO MAHAIAK ez du onartu Fracking Ez Arabak aurkeztutako herri ekimen legegilea. Ekimen horren helburua da EAE osoan frackinga eta, oro har, hidrokarburu ez-konbentzionalen ustiaketa debekatuko duen legea egitea. Legediaren arabera, herri ekimenez aurkeztutako proposamen bat ez da onartuko baldin eta, proposamena aurkezteko uanean, Legebiltzarra gai berari buruzko beste lege proiektu edo proposamen bat tramitatzen ari bada. Kasu honetan horixe gertatzen dela iritzita, Fracking Ez Arabaren herri ekimena ez onartzea erabaki du Legebiltzarreko mahaiak, EAJ, PP eta PSE-EEren botoekin.

Tramitatzen ari den eta gai bera duen beste lege proposamen hori Arabako Batzar Nagusietatik iritsi da Eusko Legebiltzarrerara. Haren helburua ere frackinga debekatzea da, baina babestutako inguruneetan bakarrik. Legebiltzarrak otsailaren 7an erabaki zuen lege proposamena aintzat hartzea.

Hortaz, Legebiltzarra gai izan da aste berean frackinga debekatzearren gaineko eztabaidari atea ixteko, eta justu kontrakoa egiteko. Baina debekuak eta debekuak daude. Fracking Ez Araba plataformako kideek argi daukate euren proposamena eta Arabako Batzar Nagusiena ez direla gauza bera, eta horregatik, errekurtsioa jarriko dute Mahaiak beren ekimena atzera botatzeko erabakiaren aurka. Partidua hasi besterik ez da egin.

mugimendua lokarraraztea zelokan, behin giroa lasaituta berriz asmo zaharrei ekiteko. Ahots kritiko horiek diotenez, legea ez da behar bezain zehatza frackinga zer den definitzeko orduan.

Izendapen kontuak ez dira anekdota hutsa. Izan ere, legearen definizio ezari aurre egiteko urratsa egin berri dute Frantziako Asanblea Nazionaleko hainbat diputatuk, ia denak Europe Ecologie alderdikoa. Urtarrilaren 16an aurkeztu zuten lege proiektu bat, hidrokarburu ez-konbentzionalen esplorazioa eta ustiaketa debekatzeko eskatuz, erabiltzen den teknika edozein dela ere. ■

**EAJ frackingaren aurka azaldu da, baina alde handia dago haren eta frackingaren beste aurkarien artean: EAJk gasa ustiatu nahi du**



Azpizuneko burrunzia

**Bartolo**  
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan aukera zabala

Fermin Calbetón, 38  
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279  
www.casabartoloetxea.com

# Euskara bistara konkista ondoko agirietan


Fernando Maiora Mendiak urteak daramatza igeri Nafarroako agiritegietan historia eta euskara bila. Bertzeak bertze, euskarazko gaitzizenak ditu bilduak, euskarak Orbaibarren eta Artaxoan duen iragana, Tafallaren historia... Zoria lagun, haren lanik ikusi duzu Iruñerriko liburudendaren batean. Irakurraldiaren hasiera da...

| MIEL A. ELUSTONDO |

“IRAGANEKO euskararen ikerketari laguntzeko baliagarri izan litekeen materiala erakustea izan dut lan honen xedea. Zerutik jakina da euskara ez dela izan hizkuntza idatzia, halakotzat hartu dutela bederen, eta horrek, nahitaez, toponimiari begira jarri dituela adituak, zorroztasun zientifikoz deus erratekotan. Hizkuntza kultutzat ez baita hartua izan, izkiriataleek gaztelaniaz izkiribatzen zuten bateko eta bertzeko lekukoek euskaraz erraten zutena. Behin baino gehiagotan, izkiriataleek erranen dute halako lekukok solas jakin batzuk egin zituela euskaraz, baina gaztelaniaz transkribatuko dituzte beti. Agiri zaharretan ezin konta ahala dira etsenpluak”. 1595eko Iruñean jasotako dokumentuan, errateko, irakurri du Maiorak: “*Se le atrebio a dezir el dicho Pedro de Landa en lengua bascongada semejantes palabras, señora Catalina, el señor Magallon es viejo y vm. moza y que era pecado questubiesen ansi, y que era mejor que hiziesen un hijo o una hija...*”.

Ber maneran, honela irakurri du 1613ko Etxarren Girgillanoko agiri batean: “*La dicha Joana de Liçaberria, acusada, començo a dezir coplas en bascuençe, motejando a la dicha Maria Martin de Abarçuça, que se entendia con el quexante (cura) y andaba tras el de rincon...*”.

Maiorak honako eta harako artxibategiak miatu ditu iraganeko



**Maiorak 1441ean hasi eta 1891 bitarteko agiri zaharretan ikusi dituen euskararen lekukotasunak bildu ditu liburuan.**

agirietan ageri diren euskararen aztarna bila. Egileak Nafarroako Errege Artxibategi Orokorra, Tafallako Epaitegiko Artxibategia, Artaxoako eta Tafallako Udal Artxibategiak eta Artaxoako Eliz Artxibategia aztertu ditu eta hagitz lekukotasun baliosak berreskuratu. “Erdietsi ditugun datuei jarraiki, erran nezake hiriak ematen dituela jakingarri gehien, eta euskara bai-

zik ez zela jende gehienen hizkuntza, XVI-XVII. mendeetan barna, bederen. Hizkuntza hartan mintzo ez zirenak Erresumaz kanpokoak ziren gehienbat, Gaztelatik etorriak batik bat”. Eta Maiorak adibide ematen baitu, horra batto: “*Graciana de Licaso, criada de Garcia de Orcoyen, moline-ro... oyo se dezian ciertas palabras Leon de Garro, quexante, con el dicho Garcia, esta deposante no comprendio todas las palabras que dezian por hablar y decirlas en romançe... mas de que oyo y comprendio que el dicho Garcia en bascuençe dixo...*”.

## Gaizkileen muga

Maiorak oroitarazten digunez, Gaizkileen muga zaharra desagertu egin zen 1512az gero. Delako frontierari dagokionez, 1200. urtean Gaztelak Araba eta Gipuzkoa konkistatu zituen. Ordu arte, geografiak ez zuen etenik: herri bat zen, hizkuntza bat, bizimolde bat. Handik goiti, muga berria ezarri zen Araba hegoaldean, eta gaur egun Gipuzkoa dugunean. Ez zen, ordea, bakerik izan. Gaztelak gogor jo zuen: Gorriti, Auza eta Ataungo gotorlekuei eraso zien, Beotibarreko gudua izan zen, Hernani eta Berastegi erre zituen Gaztelak, ganadu edo abere lapurretak, hilketak, bandoleroak, zigor operazioak agertu ziren lurraldean... Gaztelak bere interesak ezarri



JON ARTANO / ARGIA



“Erran nezake hiriak ematen dituela jakingarri gehien, eta euskara baizik ez zela jende gehienek hizkuntza, XVI-XVII. mendeetan barna, bederen. Hizkuntza hartan mintzo ez zirenak Erresumaz kanpokoak ziren gehienbat”.

zituen tokian tokiko jauntxoak laguntzarekin batera, identitateak ere bereiziz: nafarrak batean, gipuzkoarrak bertzean, bizkaitarrak han, arabarrak hemen... Ordu arteko herria desegituratu zuten. 1512ko konkistaz gero, Nafarroa barneko gotorlekuen egitekoa ere aldatu zuten. Amaiur da adibide, zazpi soldaduko dorre izatetik 50 soldaduko gotorleku izatera iritsi zen: lehen, pasabidea zaintzea zuen xede; ondotik, Gaztelaren nagusigoa zaintzea, haren indarra hedatzea, izanen du helburu Amaiurko gaztelu zaharberriak.

Gaizkileen muga desagertzeko soldadu eta gisakoak han-hemen zabaltzea ekarri zuen, aski nahi erara. Sesio eta liskarrik ez zen falta izan ordu arteko auzo zirenen eta konkistarekin etorri berri zirenen artean. Kalapita franko izan zen, eta haien lekukotasunen artean dira hizkuntza egoeraren berri ematen duten agiriak. “Primeramente que Martin de

*Cuasti, vezino de Hiça, Juanes de Arteta, vezino de Cuasti, Marti de Oreyen, vezino del dicho lugar de Hiça, que alega que son meros vascongados y el adverso que no habla ni entiende sino castellano. Provar entiendo que los dichos tres testigos por bibir como biben al contorno desta ciudad, aunque no ablen perfectamente el castellano, lo entienden vien el*

**Eskola izan da herria gaztelaniaren bide makurrean jartzeko modurik eraginkorrena. Maioraren arabera, maisu kastillanoak Nafarroan sartzea izan zen euskararen galeraren arrazoiatarik bat**

*castellano...”. Euskara zuten hizkuntza, baina arrotzaren kontrako auzian, gaztelania konprenitzen zutela ageri da, kanpokoekin dituzten harremanak medio. Maiorak dioenez, abere-lapurrak ere ugaritu egin ziren Iruñean, gaztelania gero*

## Lehen ikasgaia, irainak

BELLAKO TZARRA, bellako gaiztoa, puta hordia, apez-alaba, likitsa, puta gaiztoa, ardo-saskia, ardo-kopa, azeria, hordia, azerikumea, erroi tzarra, ustela, tripanandia, frantxot, gabatxo, doilor txarra, ozar likitsa, ozar tzarra, zimurra, zuhurra, andurra, adaburu xaharra, traidore semea, putasemea, kokina, azkonlarrua, frai zikina, agot zahar hori, kozkoronbilo, etorki gaiztoa... eta hau eta hura, amaigabeko erretolika ageri da dokumentuotan. Euskaraz erranak ziren, notario arrotzek konprenitu ez zituztela beren belarriaren arabera transkribatzen zituztenak paperean. Euskara, ahozkoan bada ere, bizi-bizirik zegoen frogak.

eta gehiago entzun ahal izan zen, eta hizkuntza goiti-beheitiak izan ziren eztabaida eta haserreetan. Halako Campuzano kapitainaren konpainiako Antonio Errera batek liskarra izan duelarik bertako emaztekiren batekin, sua piztu da, neska bakean uzteko agindu diote ondokoek delako Errera arrotzari. Laster da ika-mika, laster da auzia. Borrokaren lekukoaren testigantza garaian, lekukoa ez da gauza: “... pero porque ablaban en bascuence, este testigo no save si le ynjurio de palabras, por no entender la lengua bascongada”. 1580koa da auzia, Fernando Maiorak jaso duenez.

Konkista eta gero, bere aparatu instituzionala ezartzeari ekin zion Gaztelak. Nagusigoa gauzatzea zen helburu, gizartearen barne-

Babeslea: Bilbao Udala

**harrapazank** 2013

harrapazank.com

**harrapazank eszena**

**sortuzank tailerrak**

gazte bilbotarron komunitatea

Bilbao topagunea

## Maioraren egiak

FERNANDO MAIORA MENDIA ez da hasiberria ikerketan, ez euskararen lekukotasunen bilketan ere. Zorigaitzez, autoedizioak ditu ezagutzen dizkiogun liburuak, eta Iruñea, Lizarra, Erriberri, Tafalla, Barasoain, Puiu eta Gareseko zenbait liburudendatan baizik ez ditu jarriak salgai. Zortzi urte dira aldizkari honen orrialdeetan azaldu zenetik, artean 1800. urtean Artaxoako gazteak euskaraz mintzo zirela erranez, eta ildo berean ari da lanean. “Nafarroako gezurrezko historia ari zaizkigu kontatzen. Artxibategietara etorri eta benetako historia atera beharra daukagu... Ahal izan dudana baino ez dut egin nik. Artxibategietan paper zahar artean bila jarraituko dut, ea Nafarroako his-

toria hobeto ezagutzeko zerbait topatzen dudan”. Hala zioen orduan, eta aurkitu du hoberik, XVI. mendetik hona Nafarroan izan diren prozesu juridiko-administratiboak idatziz jaso direnez, Maiorak badu nora jo. Eskuetan dugun *Reino de Navarra. Euskera. Injurias, coplas, frases* (2011) honetan, 1441ean hasi eta 1891 bitarteko agiri zaharretan ikusi dituen euskararen lekukotasunak bildu ditu. Irakurri ahal izan dugunez, euskara bizi-bizirik zegoen herrialdean XVII. mende arte, hala Tafallan nola Artaxoan, Baldorban eta Baztanen, Oltzan eta Ultzaman, eta Aezkoa, Ibargoiti, Izarbeibar, Imotz, Etxauri, Arakil, Larraun, Erro, Ameskoa, Iza, Esteribar eta bertzetan.

barneraino eramatea. Notarioak, soldaduak, merio eta aguazilak... Kanpotarrak ziren, bertakoak zigortzera etorriak. Jakina da, ordea, eskola izan dela herria gaztelaniaren bide makurrean jartzeko modurik eraginkorra. Maioraren arabera, maisu kastillanoak Nafarroan sartzea izan zen euskararen galeraren arrazoiatarik bat. Hizkuntza autoktonoa utzi eta arrotza harrarazi zieten bertako jendei. Horra Agustin Carrasco baten adibidea, lehen letren maisu izan baitzen Arraiza, Zabaltza eta Belaskoainen. Errateko, Arraiza bereko Martin Artaizek kastillano, gaizki etorri eta buztanluzetzat hartu zuen Carrasco. Irain eta laidoak asmatzeko garaian, askotan ageriko dira kastillano, hereje, judu eta gisako perlak. Kultur talka baino gehiago zen hura, konkista zen:

arrotzak nagusitu ziren nahitaezko administrazioan, arrotza nagusi eguneroko harremanean sortu ohi ziren auzi-mauzietan.

### Juan Pascoalen euskara, Trebiñokoa

Agiriak, bertzalde, euskararen presentziaren berri ez ezik, dialektoen lekukotasun ere badira, hiztunen pertzepzio zuzenaren araberrak, bederen. Uroz-Lizoain, Artaxoa eta Goizuetako testimonioak bildu ditu Maiorak. Horieta ageri denez, errateko, “...supone segun su acento en el modo de hablar el bascuence, que serian de la villa de Goizueta...”. Euskalkien berri emateaz denaz bezainbatean, Arabaren hotsak ere jasotzen dira agiri zaharrotan. Juan Pascoal izeneko bat da tarteko. Beste soldadu baten galderari erantzun beharrean izan da: “...  
Le pregunto de donde era natural y le respondio que de Medina del Campo y de ay a cierto tiempo, viendo que ablaba bien bascuence, le torno a preguntar que de donde hera y le respondio que hera de Trevino y otra vez, de ay a cierto tiempo, le pregunto de donde hera y le

respondio, que hera de junto a Vitoria...”.

Bertze bati ere galdera egin diote Juan Pascoal horren gainean. Juan Fernandez Yarcak hiru hilabete egin ditu Zangozan Pascoal horrekin batera, baina, halarik ere “... no sabe de donde es natural [Juan Pascoal]... le dezia que le abian dicho que hera nabarro, respondio el dicho Juan Pascoal que era castellano y en Trevino tenya sus padre y madre y luego que se asento en la dicha compañya, azia como aquel que no entendia vascuence y que dize y habla muy bien vascuence y tambien como este testigo, por que es natural gypuzcoano y que en Trevino sabe que no se abla bascuence...”.

Hirugarren soldadu batek ere ez du jakin Trebiñokoaren berri zuzen ematen. Inondik ere, entzun dio esaten: “... que es natural de Trevino y otras bezes de Greño, a una legua de Salbatierra y que por lo que este testigo entiende la lengua vascongada, le paresçe que su vascuence del dicho Juan Pascoal, es de azia la tierra de Amescoa y no de la parte de donde el dize...”.

Hondarreko, irakurriko dugu “Juan Pascoal de Tribino” diotela, Pascoal beraren zehaztasun eta guzti: “... y dixo que no es natural de Tribino, sino del lugar de Arrilucea”, eta dakigunez, Trebiñoko herri da oraindik Arrilucea. Euskalduna, nonbait, 1558ko lekukotasun hauen arabera, bertako seme Juan Pascoal.

### Laido eta irain

Jendea haserre delarik, berotzen da eta berehala du esan behar ez dena mihian. Orain baino lehen ere, XVI. mendeko lekukotasunak horren erakusgarri dira, izan euskaraz, izan gaztelaniaz, *dioska* hasi ohi ziren orduan ere. Maiorak agiritegietan bildutakoen artean dira Bidaurretakoak, 1547koak: “... que este testigo por muchas y dobladas vezes le ha oydo jurar y blasfemar al dicho acusado (...) estando en combersacion y de qualquiera manera que able, que no sabe sino jurando y deziendo con juramento el nombre de Dios y cuerpo de Dios y por la sangre de Dios y otros muchos juramentos en bascuence”.

Irain, kopla, hitz eta solas biziak. ■



**Kultur talka baino gehiago zen hura, konkista zen: arrotzak nagusitu ziren nahitaezko administrazioan, arrotza nagusi eguneroko harremanean sortu ohi ziren auzi-mauzietan**



## Haur eskoletan gaztelania ere bai?

EUSKO LEGEBILTZARREAN jarrera harrigarria hartu du EAJk. PPrekin eta UPyDrekin batera Haurreskolak Partzuergoko eskoletan gaztelania ere erabiltzea onartu du. Gaur egun haur eskola publikoetako haurrak euskaraz baino ez dira aritzen.

Arrue ikerketaren emaitzak jakin berri ditugu eta eskolak haur-gazteak eskalduntzeko eta hala mantentzeko betetzen duen funtzio ezinbestekoa begi-bistan geratu da. Arrue proiektuari buruzko jardunaldian, eskolak euskararekiko betetzen duen egitekoaz ondoko terminoak entzun ziren: gotorlekua, atmosfera kontrolatua, kontrapisua... Gero eta gehiago dira euskara etxetik ez dakarten ikasleak

eta asko gaztelaniak inguratuta bizi dira egunerokoan. Haur eskolak iriak dira ume askorentzat. Bitxia da EAJ-ren erabakia, PPk proposatutakoak ez baitio onik egingo euskarari. PPren iritziz, umeak etxetik erdaldun izatea kontuan hartu behar da, gurasoen borondatea era bai, eta eskualdekako errealitate soziolinguistiko diferentek ezin dira ahaztu. Hau da, haur eskoletan gaztelania ere bermatu behar da. PPk dio bi hizkuntzak direla ofizialak eta bien erabilera bermatu behar dela. Jakina da ordea, hiztun haur-gazteek ez dutela inolako arazorik 16 urterekin, legeak agindu bezala, gaztelania menperatzeko, eta aldiz, euskaraz herren egiten dute.



ARGIA

## Bahea

**Patxi Baztarrika Hizkuntza Politikarako sailburuordeak euskara ikasteko izen-emateen jaitzieraz Berrian esanak:**

“Prestigioarekin du zerikusia. Ez nator bat esatean krisiak azaltzen duela jaitziera. Izan dezake eragina, baina euskara ikasteagatik baino gehiago ordaintzen bada beste hizkuntza batzuk ikasteagatik, eta horietan ez bada beherakadarik gertatu, krisiarekin ezin azal daiteke. Krisian egon, eta, gainera, euskara ikasteari ez bazaio behar den adinako balio sozialik aitortzen, ez bazaio behar besteko prestigiorik

ematen, alde batera uzten da. Horri buelta ematen ahalegindu behar dugu. Jaurlaritzaren mezuak garbia izan behar du: euskararen auzia bizikidetzaren auzia da. Euskara zenbat eta indartsuago izan gure arteko bizikidetzaren sendoagoa eta harmoniatsuagoa izango denez, aktiboki bultzatu behar dugu euskara ez dakiten herritarrek ikasteko pausoa eman dezaten”.

## EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

### Athletic-ek pribilegio fiskalak al ditu?

*EL CORREO ESPAÑOL* egunkariaren arabera “Athletic-eko jokalariek dagokien PFEZaren erdia ordaintzen dute”. Egunkariak azaldu duenez, 300.000 eta 3 milioi euro arteko soldatak jasotzen dituzte. 300.000 euro irabazten dituen finantza zuzendaria balitz, urtero 124.086 euro ordaindu beharko litzioke Bizkaiko foru ogasunari PFEZagatik, hau da, irabazitakoaren %42,22. Athletic-eko jokalaria, Aldundiaren interpretazio onberari esker, 50.586 euro baino ez ditu ordaintzen, hau da, irabazten duenaren %18,86. Hiru milioi euro irabazten dituen Bilbon ezarritako multinazional bateko presidentea balitz, 1.339.086 euro ordaindu beharko litzuzke, %42,22 alegia. Zergaduna Athletic-eko jokalaria denez, soilik 664.086 euro ordaintzen ditu, irabazitakoaren %22,14. Hain justu portzentaje hori ordaintzen dute urtean 15.000 euro baino gutxiago irabazten duten zergadunek; ez dira Athletic-eko jokalaria, bistan denez. Laburbilduz, Athletic-eko

jokalariek erdia ordaintzen dute, agian hori baino gutxiago ere bai.

Bilboko jokalaria talde osoak 48 milioi euro baino gehixeago irabazten du urtean. Batez besteko %20ko zerga tasa aplikatuta, jokalariek 10 milioi euro ordaintzen diote Ogasunari. Gainerako zergadunen aitortpen bera egingo balute, 21 milioi euro joango liriateke foru kutxetara. Ogasunak 11 milioi euro “barkatzen” dizkie jokalariei.

Pribilegio bera al dute Realeko, Osasunako edo saskibaloiko jokalariek? Zergatik halako jokaera fiskal pribilegiatua, Ogasunak beste zergadunak eraso eta zukutzen dituen bitartean? Krisiarekin, ogasunak diru bila dabilta. Gehien dutenengana jo eta iruzur fiskalarekin amaitzeaz gain, kirolariei egiten zaizkien halako faboreak ere ezabatu behar dira, izan Athletic-ekoak edo beste klubetakoak.

Juan Mari Arregi



# Munduko laborariak lurra osten dieten lapurren galdezka

Malasiako palma-olio ekoizle erraldoiak Afrika ekialdean lurra erosten. Wall Streeteko banku-buruak Brasilgo etxaldeetan sartuta. Saudi Arabiako printzeak Filipinetan alor zabalak berenganatzen. Suitzarrak, Txinako oligarkak... Kalkulatu da Asia, Afrika eta Amerikan 10 milioi hektarea lur berenganatu dutela kanpoko kapitalistek.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

ESPAINIA, FRANTZIA, ALEMANIA, Britainia Handia eta Italia... denen zabalera batu eta horixe da hamar urte laburretan munduko aberatsek berenganatu duten lur azalera. Bertan bizi zirenei kenduta, noski.

Hektarea kopuruak izugarriak dira. Konparazioa egin duena Fred Pearce kazetaria da, *The Land Grabbers* ("Lurren harrapatzaileak" esan-goenue edo "Lur lapurrak") liburuaren egilea. Lerroburu nagusiaren aspian, txikiagoek diote: "Munduaren jabe egiteko borroka berria. Nola ari diren pilatzen lurra Wall Street, aberats txinatarrak, petrolioaren jekeak eta agro-industriak, gosez eta jendez gainezka dagoen munduan".

Iazko maiatzean elkarrizketatu zuen *The Guardian* egunkariak Pearce. "Eskola zaharreko kazetaria naiz" aitortu zuen. Maite duela getakizunak bertatik kontatzea. Lur ebasketaz behin eta berriro aditzen zuenez, dozena bat herrialdetara joan zen lapurreta hurbiletik ikustera, nola berenganatzen dituzten milioidunek Brasilgo sabana, Indonesiako oihanak edo Malin Niger ibaiak sortutako padurak.

Ugazaba berrien zama edozertan nabaritzen omen da haietan, Pearcek kontatu duenez. "Zu bazoaz Tanzaniako paraje batetik eta saketako telefonoak esango dizu 'ongi

etorria Arabiar Emirerrien Batasunera'. Estatu honetako jeneral batek erosi ditu Tanzaniako parke nazional baten 400.000 hektareetan ehizan aritzeko eskubide guztiak. Bertakoek esaten dute gauzez argi handiak piztuta ibiltzen direla, bazterrak sutu eta ihesi doazen leopardoak AK47ekin akabatzen. Bitartean Tanzaniako Gobernuaren eliteko paramilitarrek Masai jendea handik urrun daukatela".

Amerikan baina batez ere Afrikan, edonon aurkituko duzu jendea batetik bestera mugimenduan, beren betiko lurretatik kanporatu dituztelako. Ez da begirunerik inoren eskubide ez historiko eta ez kulturazkorentzako. Lurren arpilatzaileek eremu handiak nahi dituzte, 50.000 hektarea edo handiagokoak, eta ezin da horrelakorik eskuratu baldin eta ez bada antzinatik bertan ehizan edo abeltzaintzan aritzeko usadioa dutenak fueratuta.

Munduko oligarken kirol berria bilakatu da ingelesez *Land Grabbing* eta frantsesez *Accaparement des terres* deitua. XXI. mendean gatazka, matxinada eta gerra ugariaren ama izango denaz zerbait ikasi nahi baduzu, *GRAIN* gunera jo behar duzu tarteka.

GRAIN webgunea baino gehiago da, irabazi asmorik gabeko nazioarteko erakunde txiki bat da,

*The Land Grabbers* liburuaren egile Fred Pearcek esana da: "Munduko txiroei kalte handiagoa egiten die lur lapurretak klimaren aldaketak baino". Planeta osoko oligarkek eta inbertsio funtsek lurro berenganatzen dituzte lekuko politikariak erosi eta bertako nekazaritza garatzeko promesak salduz. Errealitatean, eremu zabalok laborantza industrial oso mekanizatuz landuta oso langile gutxiarekin ekoizten dituzte metropoli-tan behar dituzten janariak (arroza, garia, oliotarako palma...), bioerregaiak (artoarekin egin etanola) edo abereentzako bazka, soja eta beste. Fred Pearcek berak atera eta *Sage Magazine* Interneten lagatako argazkian, Keniako Yala eskualdeko paduretako zenbait herritar Dominion Farm konpainiaren etxalde erraldoiaren ondoan: txarrantxazko hesiak galarazten die sartzea jai zirenetik beraiek eta aurretik beren guraso eta aitona-amonak bizi ziren eremuetara.

munduko laborariet bezala mugimendu sozialei lagundu nahi diena lekuko komunitateek kontrolatutako eta bioaniztasunean oinarritutako elikadura sistemak atxiki edo garatzen.

Bi euskaldun bederen badira GRAINen: Paul Nicholson da presidentea eta Aitor Urkiolak dauka administrazio eta finantzen ardurak. Berriketan GRAINek plazaratu du -ingeles, gaztelania eta frantsesez- agiri txit baliosa munduko lurjabe berriak zeintzuk diren ezagutzeko: "Nortzuk daude lur lapurretaren atzean?". Izen, abizen, diru, botere eta tragediaz beterik dago.

## Lurrarekin janariaren kontrola

Afrikara edo Hego Amerikara alor zabalak erosi edo alokatzera hurbiltzen den dirudunaren irrika laburbildu du Susan Paynek: "Haurra goxoki denda batean bezala. Izugarriko oportunitateak daukazu eta arriskuak jendeak uste duena baino askoz txikiagoak dira". Payne buru daukan Emergent Asset Management inbertsio konpainia kanadarrak Afrikan lur kopuru handiak bereganatu ditu.

GRAINek lursailen espekulatzailen eredutzat hautatu dituen 15etatik batzuk munduaren Ipar eta Mendebaldekoak dira, baina badira Hego eta Ekialdean suspertzen ari





Meles Zenawiren izena ere jarri du GRAINEk bere *liburu berdean*. Leku-ko politikarien elkarlana funtsezkoa baita atzerriko oligarkek lurra berenganatu dezaten. Zenawik Etiopiako hegoaldean lau milioi hektarea jarri zituen alokagai; 2011rako 800.000 emanak zeuden. XXI. mendeko kolonizatzaileak heldu aurretik armada etiopiarrek indarrez atera zituen bertako milaka biztanle, eta azpiegitura berriak urratzeko oztopo egiten zuten oiha-nak suntsitu.

Eduardo Elsztain oligarka argentinarrak honela laburbildu du diruak lurrotan zer bilatzen duen: “Aktibo errealak [lurrak] babeslekua dira inbertsiogileentzako. Urrea eta laborantzarako lurak dira gaur eskaini daitezkeen aktibo onenak, eta gu ahalik eta ondoen ari gara horretan”.

Oligarkia zaharberriaren abanikoa osatzeko, herrialde txiroen balizko laguntzaile instituzionalak ezin falta: Munduko Bankua. Afrikan eta Amerikan baserriarrak beren etxaldeetatik kanporatu eta hiri handietako txabolategietara bidaliz astakeriak egin direla entzun dute Munduko Bankuan, baina garapenari ordaindu behar zaio bere prezioa. Hala zuritu du Munduko Bankuaren lana lurrarekiko negozioren ataleko buru John Lambek: “Kalifornian [XIX. mendean] urrearen beroaldiarekin bezala gertatzen da orain. Lehenbizi iristen diren inbertsiogileak ez dira munduko itxurazkoenak”. Alegia, lapurreta handia hasi beste-rik ez dela egin. ■



diren herrialdeetakoak ere, Indiakoak, Txinakoak... Hego Afrikakoak da Theo de Jagger, bere sozioekin inbertsioak egin dituen Kongon: “Munduko lur eta uren %45 gutxi probesten dira. Guk ez baditugu baliatzen oportunitateak, beste norbaitek egingen du”.

Txinako telekomunikazio konpainia handiena den ZTEren presidente Hou Weigui muturra sartzen hasi berria da Kongon eta Sudanen, baina aurretik Laosen 100.000 hektarea, beste milaka batzuk Indonesian.

Afrikan besteren artean bi indiarren izenak egin dira famatu: *Siva* Sivasankaran eta Sai Ramakrishna Karuturi. Honen deitura hartu du Karuturi Global Ltd. konpainiak.

Ikusi eskuratu dituen eremuen neurriok: 311.700 hektarea Etio pian, Tanzanian negoziatzen ari da 370.000, granja erraldoi gehiago Kongon, Sudanen, Mozambiken eta Ghanan.

Karuturiren operazioen berri asko entzun da Afrikan, batez ere Gambela eskualdeko gatazkagatik. Human Rights Watch erakundeak 2012an salatu du Etiopiako Gobernuak indarrez lekualdatu dituela hango 70.000 biztanle, belaunaldiz belaunaldi bertan bizi zirenak, txabolategi berrietan haiek pilatzeko. Anuak etniako jendei alorretan zeuzkan landare eta zuhaitzak erauzi dizkiete jabe berriek.

Etiopian 2002ko abuztuan hil zen arte lehen ministro izandako





**ZINKUNEGI  
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia  
T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com  
www.zinkunegioptika.com

**zuri begira**

Xabier Letona

◆ ARGIAKO ZUZENDARIA



DANI BLANCO

## Adio, Yolanda?

UPN OSO ATAKA ESTUAN ari da aspaldian, eta hainbat arrazoirengatik gainera: 2008aren bukaeran PPrekin emandako apurketa, hauteskundeen ondoren PPrekin bakarrik gobernua osatzeko aukerarik eza, krisi ekonomikoa eta egindako murrizketek Nafarroan ekarritako giroa, PSNrekin egindako koalizio gobernuaren apurketa, CANeko eskandalu guztiak... eta orain barne krisi sakona, Yolanda Barcina eta Alberto Catalanen lehian islatzen dena. Eta eremu batean krisi latza dena, aukera gisa ikusten da bestean.

Beste esparru hori oposizioa da, Barcina astetik atera higitzen ari dena eta, berriz ere, UPN Nafarroako boteretik kentzeko aukera ikusten duena; aukera teorikoa bederen, egiazko aukerak askoz urriagoak dira eta. Baina badira, eta badira, ez bakarrik Nafarroako eskuina ataka estuan ari delako eta azken urteetan boterean arrastaka dabilrelako; aukerak badira, oposizioa ere sendotu egin delako eta sendotzen jarrai dezakeelako. Abertzaletasunak, EH Bildu eta Geroa Bairekin, egungo posizio ona hobetu dezake etorkizun hurbilean; eta Ezkerra (Ezker Batua-Batzarre) moduko koalizio batek ere bai, bai krisiak aukerak ematen dizkiolako, Espainian hainbat lekutan gertatu den moduan, eta bereziki, PSNren orain arteko jardunak uzten dion tartegatik.

Nafarroako herritarren artean irudigaitza da UPN boteretik kanpo imajinatzea, eta are irudigaitzagoa abertzaleak gobernuan ikustea. Baina duela sei urte era horretarako aukera bat gauzatzekotan izan zen, 2007ko udan PSN, Na Bai eta NEB Fernando Purasek gidatutako gobernu eratzekotan izan zirenean. Ferrazek zapuztu zuen aukera. Eta orduan, ETA oraindik jardunean eta European

krisiaren leherketa eman gabe oraindik, ia posible izan bazen, gaur egun are eta posibleago da. Abertzaleek are eta indar handiagoa dute orain, UPN larriago dago eta PSN bere historiako hauteskunde emaitza txarrenarekin eta UPNrekin koalizioan aritu izanaren zamarekin. Aukerak badira.

Eta hori zapuztera dator Alberto Catalan eta UPNko alderdi apartua: 2007an bezala, PSNk abertzaletasuna jo beharrean, UPNrantz egin dezan, Nafarroaren egungo estatusaren defentsa aitzakia gisa hartuta. UPNk martxoaren 17an egingo du kongresua eta aste hauetan hobeto ikusiko dugu bere barne egoera zein den, baina badirudi Barcina anderea urrutiegi joan dela bere ametsetan eta lepoa moztuko diotela. Lepoa moztu lehenik alderdian; eta hori eginda, bere lehendakari ibilbidea ere urria litzateke.

*Dimititu ondoren, hauteskundeak aurreratzen diren ala ez ikusi beharko litzateke, baina badira arrazoiak pentsatzeko UPNri ez zaiola aurrerapena interesatzen, eta saiatuko dela denbora irabazten*

Hainbat hipotesi egin daitezke. Catalanek irabaziko balu, ikusi beharko litzateke Barcinaren izaera eta harrokeriak Gobernuko lehendakari gisa jarraitzen utziko liokeen. Posible litzateke, baina dagoeneko jota legoke, eta gainera hor du oraindik Nafarroako Kutzako auzia epaitegietan. Baina gutxiengoan eta gainera alderdiaren sostengurik gabe... logikoena dimisioa litzateke.

Dimititu ondoren, hauteskundeak aurreratzen diren ala ez ikusi

beharko litzateke, baina badira arrazoiak pentsatzeko UPNri ez zaiola aurrerapena interesatzen, eta saiatuko dela denbora irabazten, bai bere burua sendotzeko, baita PSNrekiko harremanak birbideratzeko ere. Eta Barcinak dimitituko balu eta hauteskundeak aurreratu ez, norbaitek lehendakaria izan behar duenez, hara Alberto Catalanen aukera: bigarren bozketan, UPNren 19 parlamentariak nahikoak lirateke hautatua izateko.

Hori oposizioak alternatiba osatzeko indarririk ez balu, eta ez dirudi PSN horren aldekoa litzatekeenik. Areago, prest balego ere, legealdiren sasoi honetan ez litzateke aukerarik onena. Oposizioan indar abertzaleak giltzarri dira edozelako gobernu alternatibarako, baina berau osatzeko PSN ere bai. Eta hor da dilema, PSNk berriz UPNra jotzen badu desagertze bidean jar litekeela. Edozein egoera eta logikan, EH Bilduk eta Geroa Baik indartzen jarraitu beharko lukete, hauek indartsu izatean samurrago erakarri ahal izango luketelako PSN. Eta abertzaletasuna Nafarroan indartsu izan dadin, EH Bilduren eta Geroa Bairen artean behar da lehia, baina baita ere estrategia bateratu bat egituretzeko elkarlana.



Abertzaleen eta indar aurrerazaleen indar metaketa geldoa gertatzen ari da Nafarroan, eta badira aukerak metatzen jarraitzeko. Nafarroako gizartearen errealitatea irakurtzeko gaitasuna, gizarte mugimenduekin konektatzeko ahalmena eta pazientzia dosi handiak ezinbestekoak dira gobernu alternatibaren eraikuntzan. Beti ere gaitzak diren baldintzak, eta areago alderdiak tartean direnean. Eta hala ere, bada aurrera egiteko aukerarik. ■





ASTE HONETAKO

# zozketak



## Iruñeko Planetarioa

3 harpidunentzat  
bina sarrera

Antso Ramirez. z/g  
Iruñea NAFARROA

[www.planetario.org](http://www.planetario.org)

1



## Bilboko Euskal Museoa

3 harpidunentzat  
bina sarrera

Miguel de Unamuno plaza, 4  
Bilbo BIZKAIA

[www.euskal-museoa.org](http://www.euskal-museoa.org)

2



## Berian 19+2

Igoerak oinez, bizikletaz eta  
eskaladak

5 liburuxka opari

Berian NAFARROA  
[www.berianmendia.com](http://www.berianmendia.com)

3



## Artez euskara zerbitzua

2013  
5 mahai tako

Luzarra 10 - 2 Sol.  
Bilbo BIZKAIA

[www.artez.net](http://www.artez.net)

4



## Illimani

2 liburu opari

[www.argia.com/denda](http://www.argia.com/denda)

5

## AZKEN IRABAZLEAK (2355. Argia)

### ANDRA MARI JATETXEA

• Igor Piñero Zabala (Getxo)

### ZINTZOEN SALDOAN liburuak

- Puri Txasko Txasko (Bilbo)
- M. Jesus Barrenetxea Azkunaga (Galdakao)
- Ostolaza Udal Liburutegia (Deba)
- Joxe Inaxio Mantzisor (Zumaia)
- Andoni Alba Salaberria (Iruñea)

### DONOSTIAKO AQUARIUMA

- Marisa Ibarburu Urra (Donostia)
- Xabino San Sebastian Murua (Ororbia)
- Olatz Arruabarrena Izagirre (Errenteria)
- Joxe Rojas Granja (Etxebarri)

### ARTEZ EUSKARA ZERBITZUA Mahai takoa

- Arrigorriagako Udal Euskaltegia (Arrigorriaga)
- Mari Jose Irizar Aranburu (Donostia)
- Hilario Berasategi Arrieta (Idiazabal)
- Maria Asun Azpiazu Ansoreggi (Mutriku)
- Portugaleteko Aek Euskaltegia (Portugalete)

### 888 TXISTE

- Patxi Arostegi Jimeno (Bilbo)
- Karlos Zarraga Ellakuria (Zaratamo)

\* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

## PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • [gunea@argia.com](mailto:gunea@argia.com)

[www.argia.com/gunea](http://www.argia.com/gunea)

Gunea

argia



euskalerrairratia **fm91.4**



Nafarroako Gobernuaren  
debekuaren aurrean  
emaguzue zuen baimena

# Bazkidetu!

[euskalerrairratia.com](http://euskalerrairratia.com)

**00 34 948 17 01 51**